



Garraio publikoaren alde

Satrustegin autobusak geldi daitezen aldarrikatzeko protesta egin dute / 5



Euskaraldia, hizkuntza ohiturak aldatzeko markoa / 9

Hirigintza antolaketa adostuta, Hiriberrin 20 etxebizitza eraikitzeko lehen pausoa / 11

Emakumezkoen lehen senior mailako CBASK taldeak lehenengoz jokatu du Lauko Finala / 16-17

Bosgarren Aixita bertso sariketa, Irurtzunen "gorpuztu eta indartu" den bertso saioa / 22

SINADURAK



JAVIER
CASTIEG
BARANDIARAN / 4



SAKANAKO
SARE / 4



MIREN
ALDASORO
LEZEA / 10



IRATI
EIZAGUIRRE
SAGASTIBELZA / 23

"Sexilioa gu guztioi eragiten digun kontu bat da"

MARTXEL LARRAZA ETA JOSEBA OLAGARAI XERKA PROIEKTUKO KIDEAK

Fotokazetaritza proiektuak bost testigantzen bidez LGTBIQ+ komunitateak herrietan bizi duen erbesteratze-prozesu isila lantzen du

A.A.I. ALTSASU

Xerka proiektuko argazki erakusketa apirilaren akaberan eta maiatzaren hasieran ikusgai izan zen Altsasuko Iortia kultur gunean. Haren osagarri hitzaldia eman zuten proiektuko kideek, altsasuar baten testigantzez lagunduta. Kontzeptu bategatik elkartu gintuen proiektuko kideekin.

Zer da sexilioa?

Martxel. Sexu orientazioa, genero identitatea dela-eta jasaten duten zapalkuntzarengatik euren familia eta gizarte inguruetik hiriguneetara ihes egiten duten LGTBIQ+ pertsonen edo pertsona disidenteen migrazio behartua. Guk azken hitz horretan azpimarra jartzen dugu, behartua dela, inork derrigortu gabe ere, ihesbide moduko bat delako. Definizio horren faktore garrantzitsuena termino hori da.

Erabaki horren atzean, zer dago?

Joseba. Gauza ugari. Segur aski sexilioa beti egon den gauza bat da. Historikoki, herri txiki guztietan izan dira herritik hanka egin duten pertsonak. Beharbada askotan ez dakigu zergatik

joan diren herritik, eta ikusezina ere izan dira hamarkada luzez. Gaur egun, poliki-poliki, ikusgarritasun pixka bat ematen ari gara LGTBIQ+ kolektiboko pertsona guztiei. "Duela 20 urte hemendik martxa egin zuen Mikel. Zergatik joan zen? Nora joan zen? Zergatik ez zen hemen eroso sentitu?" Heteroarauak markatzen duen bidetik atera garen guztiok beti egin dugu migrazio behartu hori. Baina, beharbada, guk geuk ere ez dugu jakin zergatik egin dugun. Eta herrian ere desagertu den jende asko ez dakigu zergatik desagertu den. Desagertuta egon den jende horri guztiari hitza eta lekua eman nahian gabilta. Herriz herri gabiltzala konturatu gara halako zenbat jende dagoen. Zeren hitzaldiak akabatuta, guregana hurbildu zaizkigu behin baino gehiagotan lekukotza ematera. "Ni duela 30 urte Iruñera joan nintzen. Eta gaur egun nire herrira bueltatzen naiz. Zuek ari zarete mintzatzen sexilioari buruz eta ni izan naiz sexiliatutako bat. Zein ederra den nire herrian gaur egun posible izatea gauza

horiei buruz hitz egitea". Beraz, zenbait jenderengan errekonozimendua sentitzen ari gara, beti existitu den fenomeno izan da, gaur egun ere existitzen dela. Gaur egun oso modernoak gara denak, eta denok dugu lagun gay bat, denok dugu lehengusina lesbiana bat, den-denok gara guztiz toleranteak. Baina kontuz tolerantziaren termino horrekin. Nondik nora egiten da tolerantzia hori? Zeren beti dago toleratzen duen bat.

Sexiliorako pauso hori ematea kosta egiten da?

M. Xerka proiektuak bost testigantza biltzen ditu. Beraien lekukotasunetan nabaritzen da kosta, ez dakit, baina askotan, beharbada, konturatu gabe egiten dela migrazio mota hori, bestelako faktore batzuegatik baldintzatuta dagoelako, esaterako, ikasketak edo lan kontuak. Askotan jende hori ez da konturatzeko zein beharrezkoa zuen kanpora alde egitea kanpoan dagoen arte. Kasu batzuetan kosta egiten da, baina beste batzuetan nahigabeko zerbait da kasik. Prozesu pertsonala da, bakoitzak

bere erabakia hartzen du, modu kontzienteago batean edo egoerak behartuta. Faktore ugari baldintzatzen duten migrazioa da. **J.** Denok leku seguru bat bilatzen dugu. Sortzen garen momentutik, familia batean, herri batean, kolektibo batean barrenean nahi dugu onartuak izan, maitatuak izan. Zenbaitek hori lortzen dute biziak jartzen diren leku horretan, beste batzuek, beharbada, ez. Eta leku seguru baten bila LGTBIQ+ kolektiboko jende ugari bere herritik kanpora jotzen du. Herri guztietan dagoen fenomeno bat da. Eta seguru Sakanako herri ugari gertatu dela. Guretako oso aberasgarria ari da izaten orain arte isilpean egon den hori ateratzea. Jendeak erantzun, *feedback* goxoa ematen digu bueltan. Jendea ez bakarrik zoriontzera etortzen, baizik eta "niri hau pasa zitzaidan. Nik badaukat bizilagun bat hori pasa zitzaidana"... Nolabait, bat-batean konturatu balira bezala fenomeno hori egon dela beti, eta beti erdi isilik, lotsarekin edota gordeta bizi izan den zerbait izan dela. "Madrilera joan da. Han egin du bere bizia. Ez dakigu ongi zer pasa den beraiekin". Guretako polita da hitzaldi horien bidez hain gordea egon den fenomeno bat itzaletik argira ekartzea.

Zer dakarkio sexilioak migratu duenari?

M. Kasu askotan lasaitasuna eta bakea izan da, askatasun, anonimotasun hori. Horiek dira

"HETEROARAUAREN BIDETIK ATERA GARENOK BETI EGIN DUGU MIGRAZIO BEHARTU HORI"

"BAKOITZAK HARTZEN DU ERABAKIA, MODU KONTZIENTEAGOAN EDO EGOERAK BEHARTUTA"

aipatzen diren ezaugarri batzuk. Eta askok herritik penaz alde egiten dute, sustraiak han dituztelako. Testigantzetako baten kasua hori da, ondoren nolabaiteko hermina sentitu zuen. Baina horrek ez du esan nahi kanpora joateak ez dionik eman lasaitasun hori, inork ezagutuko ez duen leku batean egote hori, zerotik hasteko sentsazio hori, bere burua hasieratik den bezala ezagutzera emateko modu hori...

J. Geroz eta eskubide gehiago ditugu gaur hori libreki agertzeko munduaren aurrean. Baina hori ere ez da gauza berri bat. Hau da, segur aski transak beti egon dira. Beste kontu bat da beraien buruari baimena eman dioten diren hori izan ahal izateko. Herri txikietan, euskal landa eremuan eta euskaraz bizi direnak, garenak, aukera hori izan dugu? Ez da bakarrik orientazio edo genero kontu bat. Azkenean norberak bere buruari nahi duen hori izateko aukera ematean datza. Horretarako, leku seguru bat non topatzen du? Segur aski heteroarauak markatzen duen bidean gizonezko txuri heterosexual batek nahiko erraz lor dezake edozein inguruetan leku seguru hori, berarendako bizitzeko erraza izan dena. Baina, ziurrenik, ez bitarra den pertsonarendako ez du hain erraza izan 700 biztanleko herri txiki batean, Euskal Herrian. Gero eta aukera gehiago daudela esaten ari gara, gero eta izendapen gehiago daude. Eta eskerak hala den. Baina oraindik ere zer hausnartu handia dugu, zeren denok uste dugu errespetatzen badakigula eta eta parekoa onartzen badakigula. Baina, gero Ordiziako alkateari bere etxerako bidegorrian pintada egiten diote. Kontua izan behar dugu. Gaur egun, oraindik, gai horiek plazaratu behar dira, jende aurrean agertu behar dira. Eskubideak egintzat eta onartutzat ematen ditugu maiz, baina ez da beti horrela. Amerikako Estatu Batuetara begiratzea besterik ez dago, ikusteko aurrera bi pauso



TALLERES GOÑI
TAILERRAK



AKABORRO II INDUSTRIALDEA • IRURTZUN



- Ibilgailu guztien txapa konponketa eta margoketa
- Bankadako lanak
- Adeitasun autoak doan
- Kristal aldaketak



680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com



Martxel Larraza Indaburu eta Joseba Olagarai Goienetxe erakusketa atzean dutela.

eman orduko, beste bi atzera egiten ditugula. Han transek sekulako egoera gogorra bizi dute, eta presidenteak dio pertsona ez bitarrak ez direla existitzen. Hain urrun joan gabe, hemen inguruan ere kontu handia izan behar dugu, eskubideak behin lortuagatik ez direlako betiko lotuta gelditzen. Etengabeko borroka batean segitu behar dugu. Halakoei bere lekua, bere ikusgarritasuna eman behar zaie, jendea pixka bat ukitu kontzientzia bat hartzeko, non gauden eta orain bide zenbat pauso ditugun eman beharrak jakiteko. **Halako migrazio bat duen herriari zer gelditzen zaio?**

M. Berez badagoen heteroaraua inoiz baino finkatuago gelditzen da, sendotu egiten da. Herriari berari mugak jartzen dizkio. Espazio hori segurua da soilik gutxi batzuek. Bertakoak joateak eragiten du leku edo armairu itxi horretara ere kanpotik jendea ez sartzea. Horretan ere eragina izaten dezake.

Sexilioa ikusten da?

J. Googlen sexilioa jarritz gero, definizioa opatzea ez da hain erraza. Gordea egon den fenomeno hori, existitu izanagatik ere, beti apuru harekin bizi izan dugu. Orokorrean LGTBIQ+ kolektiboko parte garen guztioi gertatu zaigun gauza da: beti izan gara, baina ez dakit zenbat ikusi gaituzten. Orain bagara

eta ikusiak izan nahi dugu garen horregatik, ez bertze batzuek gurekiko duten perspektibatik, edo guregatik dauzkaten espektatibengatik. Sexilioa horren adierazle bat gehiago da. Geroz eta bizigarriagoak dira Euskal Herriko landa eremuko herri txikiak, geroz eta abegikorragoak dira, geroz eta errazagoa da edozer motatako familia ereduak topatzea. Baina, oraindik ere, poliki-poliki, leku hori konkistatzen ari gara. Herri euskaldun bizigarriak errebindikatzen ditugu, LGTBIQ+ kolektiboko kideak parte izanen garenak.

Sexilioak badu generorik?

J. Ez dut uste eksklusiboki gizon eta emakumeen edo pertsona ez bitarren kontu bat denik. Azkenean, bere burua bere herrian seguru sentitu ez duen edozeinek nolabait pentsatu duela: "martxa eginen dute hemendik. Banoa nire herritik". Edozeinek bizi duen kontu bat da.

M. Ez nintzateke ausartuko esatera sexilioak genero bat duenik. Aipatu dugun definizio horretan faktore garrantzitsuenetako bat generoa da. Genero adierazpena lotua dago dudarik gabe. Hortik esatera sexilioak genero bat edo besteak daukan, ez dugu halako daturik. Argi dagoena da komunitate zabal honetan, denei eragiten diela modu batera edo bestera.

J. Hitzaldian sexu balioaz hizketatzeaz aparte, oinarritzko lau kontzeptu azaltzen ditugu: sexu generoa, sexu biologikoa, sexu orientazioa eta sexua adierazpena. Ustez oinarritzko kontzeptuak, denok dakizkigunak. Baina jendeak eskertzen digu azaltzea zer den gauza bakoitza. Zeren oraindik batzuek ez dute desberdintzen zer den sexu biologikoa eta zer den generoa. Alegia, pertsona bat sortzen da mundura genital batzuekin, baina horrek ez du esan nahi genital horiei lotutako genero bat duenik. Generoa erakuntza sozial bat da, inguruak, gizarteak, familiak erabakitzen du eta, ondoren, zuk zerorrek erabakitzen duzu zu zer zaren. Zu zakilarekin sortzeak ez du esanahi gizona zarenik, izan zaitezke, edo ez. Hori ere azaltzen dugu hitzaldietan.

Sexilioak badu adinik?

M. Ez. Proiektu honen dokumentazio lanean aztertutako testigantzetan patroiz batzuk ematen ahal daitezke: 18 urte inguru horretan ikasketak egitera kanpora joaten denaren bizipen pertsonalak daude. Ez du adinik. Belaunaldi helduagoetako jendea asko dago oraindik ere kanpoan dagoena, eta horiek ere sexilioa bizi izan dute eta bizitzen ari dira.

J. Guretako garrantzitsua da hitzaldian mezu positibo bat transmititzea: gaur egun Euskal

Herrian posible dela herri txiki batean bizi eta genero disidente bat izan. Hau da, heterosexuak ez garenok ere badugu aukera gaur egun Euskal Herrian euskaraz bizitzeko. Bide horretatik egiten ditugu gure hitzaldi guztiak. Hala ere, egia da utopia baten barreneko zer zerbait dela zenbait kasutan oraindik hori, oraindik kostatzen dela. Baina oraindik ere, heteroaraua zenbat eta gehiago hurbildu, orduan eta errazago onartzen dute pertsona horiek. Baina zer gertatzen da pertsona bat ez bitarra baldin bada, guraso ez bada eta eta nahi baldin badu, esaterako, Arruazun bizi. Bere tokia opatuko luke? Hori defendatzen eta bilatzen dugu: gaur egun edozein genero, identitate, familia eredu, edozer

"HETEROARAUA INOIZ BAINO FINKATUAGO GELDITZEN DA SEXILIOA DAGOEN HERRIETAN"

"HERRI EUSKALDUN BIZIGARRIAK ERREIBINDIKATZEN DITUGU, LGTBIQ+KO PARTE GARENAK"

egin nahi duzula ere, landa eremuan lekua izan behar duela.

Zer da Xerka?

M. Orain arte hitz egin dugunaz ari den hitzaldi eta argazki proiektu bat da. Euskal Landa eremuko bost pertsona disidenteren testigantzetan oinarrituta dago. Haien argazkiak eta lekukotasunak ikusi eta irakur daitezke argazki erakusketan. Eta, bestetik, hitzaldietan lekukotasun horiek helduleku gisa hartzen ditugu, orain atera diren gai potolo batzuek hizketatzeko: heteroaraua, generoa, armairua, biolentzia egoera, diskriminazioak... Hori dena, betiere, Euskal Landa eremura, Euskal Herriko herri txikietara ekarrita. **Argazki erakusketa hitzaldiarekin laguntzen duzue.**

J. Hitzaldian erakusketako bost protagonisten testigantzekin azaltzen dugu sexilioa zer den, adin eta genero desberdinetan, Euskal Herriko hainbat lekutan nola errepikatzen diren zenbait sentsazio eta mugimendu. Gainera herriko LGTBIQ+ kolektiboko pertsona bat gonbidatzen dugu bere testigantza ematera. Altsasun, esaterako, Ainize Ibar gutxi Iparragirre izan zen bere esperientzia kontatzen. Bera lesbiana da eta Altsasun bi emakume lesbianaren familian bizi-tzea nolakoa den azaldu zuen.

Zerk egiten du ezinbesteko Xerka erakusketara eta hitzaldira joateak?

M. Herrietan hain beharrezkoa den espazio seguru bat sortzen da, ideiak plazaratzeko, beste egoera batzuk aditzeko, ulertzeko, edozer gauza ikasteko eta elkarren babes hori sentitzeko. Herrietako jende horri ahotsa ematen diegu. Hori entzuteak halako indar edo kementa eman diezaiokie beste norbaiti bere testigantza edo inguruko norbaiten egoera argitara emateko, norbere barruan zerbait sentitzeko, zerbait pizteko. Sexilioa denoi eragiten digun kontu bat da.

J. Girogoxoaz sortzen da, publikoak parte hartu izan du galderak eginez, bere historia partekatuz. Haien eta gure arteko solasaldiak sortu dira. Hitzaldi parte hartzailea da. Guretako ere aberasgarria da hori, herri bakoitzean zerbait ikasten baitugu. Bihotza ukitzen duen hitzaldia da. Gehiago edo gutxiago, denok dugunez inguruan LGTBIQ+ kolektiboko norbait, gai horiek denok ukitzen gaituela.



ASTEKOA

JAVIER CASTEIG BARANDIARAN

Kita

Duela gutxi Europar Batasunak, etxe guztietan, familiako kide guztiendako, larrialdi egoeran, 72 orduz bizirik mantentzeko biziraupen kita izateko aholkua eman zuen. Kitaren osagaiak zeintzuk izan behar ziren eta larrialdiak, klimatikoa, gerra edota ziber erasoak izan zitezkeela argitu zuen. Baita bideo tutoriala prestatu errazago ulertzeko ere, nonbait. Kitaren ereduak, dirudienez, Europako iparraldetik hartu zuten, non nahiko normalizatua daukaten etxe guztietan.

Oharra nahiko harrigarri egin zitzaidan gizarte zibilera bideratua zegoelako eta ez estatuei. Gizarte zibilari dei egiten zion, edozein gauza gertatuta ere, lehenengo 72 orduz bizirauteko prest egon zedin, ordu horiek baitira erabateko kaosa eta erantzun ordenatuaren arteko aldea markatzen dutenak.

Lehenengo orduetan, agian, pixka bat larritu ginen baina gizarte honetan non berriak eta *fake*-ak, bata bestearen atzetik eta sekulako abiadan sortzen diren, hurrengo 72 orduetan, gehienok ahaztuta.

Kasualitatea edo ez, ohar horretatik hilabetera, Iberiar penintsulan, guztiok bizi dugun ustekabeko itzalaldia izan zen.

OHARRA NAHIKO
HARRIGARRI EGIN
ZITZAIDAN GIZARTE
ZIBILERA BIDERATUA
ZEGOELAKO

Eta gehienok kitik ez, eta nik uste, orduan, ohartu ginela gure ongizatearen gizartea zein hauskorra den.

Mundu aurreratu honetan, non ia dena etxetik egin dezakegun ordenagailuak edo antzeko gailuak lagunduta, non ia dena algoritmoek eta robotek

kontrolatzen duten eta adimen artifiziaia baliatuta lor daitekeen; dena egin daiteke baina argindarra izan behar dugu, bestela ezin dugu ia ezertxo ere egin. Ezta otorduak prestatu ere.

Bazirudien azkeneko hamarkadetan sekulako aurrerapenak eginak genituela, baina atzera begiratuta, lehen oso ohikoak ziren etxeko "plomoak" urtzea edo besterik gabe, herri oso bat argindarrik gabe gelditzea, eta orduan etxe guztietan moldatzen ginen, kandelak piztu edota butanoa atera eta segi aurrera.

Ez naiz oso atzera begira zale, baina, noiz behinka, atzera begiratuko bagenu, ziurrenik kita prestatuko genuke inoren oharrik edo bideo tutorialik gabe.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteartea 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Konponbide eta
elkarbizitzaren
bidean, euskal
presoak etxera!
Puzzlea osatu arte!

SAKANAKO SARE

Datorren urtean ETak bere jarduera amaitu zuela 15 urte beteko direlarik, oraindik, hainbat dira salbuespen legeak medio etxerako bidea oztopo duten euskal presoak. *Puzzlea osatu arte* deitu diogun ekimenean, zigorra erregimen itxian betetzen ari diren presoak eta haien herriak ardatz izango dituen ekimena burutzea dugu helburu.

Espetxe eta birgizarteratze politikak, baldintzak betetzen dituztenen kasuan, zigorraren azken urteak erregimen

irekian betetzeko aukera ematen die preso guztiei oro har. Euskal presoek kasuan, ordea, salbuespen politika da bide horren oztopo eta lege arrunta aplikatuko balitzaie, euskal presoek %100ek beteko lituzke kalera irteten hasteko baldintza horiek.

Herri honetan bizi izan dugun gatazkaren ondorioen konponbidearen logikan, biolentzia ezberdinen biktimek merezi eta behar duten egia eta aitortzarekin batera, lege arrunta aplikatu eta urteetan zehar luzatu den, eta egun oraindik sufrimendua eragiten duen, euskal presoek auziarekin amaitzeko baldintzez ari gara, etorkizunari begira jarri eta elkarbizitzari ekarpenak egiteko baldintzez.

58 dira egun zigorra erregimen itxian betetzen ari

diren euskal presoak, eta 29 dira preso horiek barne biltzen dituzten herriak. 29 herri horiek lotuko dituen ekimena da *Puzzlea osatu arte*, eta maiatzaren 17an eta 18an zehar, preso horiek etxerako bidea egitearen garrantzia da nabarmendu nahi duguna.

2 egunez, Lesakan hasi eta Iruñean amaituko den *Puzzlea osatu arte* ekimenean, oraindik puzzlea osatzeko falta zaizkigun zatiak puzzlean kokatzeko eskatuko dugu. Puzzlean falta diren presoek lege arrunta aplikatu eta etxerako bidea egin dezaten aldarrikatuko dugu. Baldintzak betetzen dituztelako, legeak aukera ematen duelako.

Maiatzaren 18an, arratsaldeko 18:00etan beste zita bat dugu Etxarri Aranazko plazan. Zatoz gurekin!

GUTUNA

Infernubai sube,
salbuespenai akillube

ARITZ IGOA ETA ANDER MUÑOZ
ETXARRI ARANAZKO SORTU

Pello Mariñelarena Imaz etxarriarra Pariseko espetxe batean hil zen 1993. urteko maiatzaren 15ean. Salbuespenean oinarritutako espetxe politikaren ondorioz hil zen. 1981. urtetik 2020. urtera, espetxe politikak hogeit preso eta hamasei senitartekoren bizitzak eramanez aurrera. Hogeita hamasei euskal herritarren bizitzak.

Zer da salbuespena? Beraiei burua Zuzenbide Estatutzat duten Estatu batzuek erabakitzen dute herritar multzo bat funtsezkoak diren

eta legean jasoak dauden eskubide sorta bat gabe uztea, helburu politiko batzuk lortzeko. Euskal gatazkaren testuinguruan hainbat "salbuespeneko" politika aplikatu ditu Espainiak, Frantziaren konplizitatearekin. Besteak beste, atxilotuen inkomunikazio eta tortura sistematikoak, militanteen exekuzio estrajudizialak, alderdi politiko eta eragile sozialen legez kanporatzeak... eta espetxe politika. Zein helbururekin? Errelatu "ofizialak" esanen du borroka armatuak "behartu" duela Estatua salbuespeneko politikak egitera. Demokratikoa izan nahi duen Estatu baten zilegitasuna bera eskubideen aitortza unibertsal

eta salbuespenik gabekoan dagoenean. Baina borroka armatuarena aitzakia merkea izateaz aparte, gezurra ere bada. Euskal Herrian salbuespen politikak aplikatzen ziren ETA sortu aurretik, eta aplikatzen dira ETA desagertu ondoren ere. Espetxe Politika kasu. Horren adibide gertukoena dugu Pelloren lagun mina zen Juan Ramon Karasatorrek bizi duen egoera. 24 urte preso, oraindik erregimen itxian, oraindik Frantzian bete duen zigorraren zatia aitortua izan gabe. Salbuespen politikarik ezean, kalean behar luke Juan Ramonek. Pello eta Juan Ramon izanen ditugu gogoan larunbatean Etxarri Aranatzan.



www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Garboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearna Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Satrustegiar guztiek bat egin zuten aldarrikapenarekin eta Zuhatzuko markesinaraino autobusaren aurretik joan ziren.

Autobusa Satrustegin gelditzearen alde

Gasteiz eta Iruñea lotzen dituen lineako autobusaren aurrean jarri ziren satrustegiarak, eta Zuhatzuraino oinez joan ziren.

"Geltokia izanda, behar dugunean autobusa gelditzea nahi dugu"

IRUNE ETA BIDANE MARTINEZ, IGOR LANZ ETA ALBERTO ONGAI

Satrustegiarrek, martxaren ondoren, Zuhatzun erantzun zuten.

Zuhatzuraino paseatzen askotan etortzen zarete?

Igor. Bai. Egun ez dago beste modurik. Nahiz eta markesina izan, autobusa ez da gelditzen. Diotenez, markesinak ez du baldintzarik betetzen. Beraz, satrustegiarrok autobusa hartzera Zuhatzura edo Hiriberrira joan behar izaten dugu.

Zuei halakorik pasatzen zaizue?

Bidane. Bai.

Udane. Gehienetan Zuhatzura etortzen gara. Ikastera goazenean, lagunekin egotera goazenean edo Iruñera edo Altsasura zerbait egitera goazenean eta gurasoek eraman ezin gaituztenean, autobusa Zuhatzun hartu behar izaten dugu.

Nola etortzen zarete Zuhatzuraino?

B. Batzuetan oinez etortzen gara. Gazez denean autoan eramaten gaituzte.



Gida baimenik baduzue?

B. Ez.

U. Bai, baina, gehienetan, Iruñera joateko autobusa hartzen dugu. Erosoa da. Alberto. Badut gida baimena, bai. Autobusa gehiago erabili behar da. Gobernuak garraio publikoa bulkatu egin behar du, eta gauzak hobeki egin. Autobusek Satrustegin gelditu behar dute, eta jendeak autobusak hartu behar ditu.

Jendea autobusa hartzera ondoko herrietara eraman duzu?

A. Bai, bai. Ahal bada, herriko gazteak eramaten dituzu.

I. Jakina. Aurrekoan Gasteizko familia etorri zen. Gazez oso

arriskutsua da: errepide estua da, bide bazterrik ez dago... Ibiltzeko, txarki. Eta eguraldi txarra egiten duenean km erdia oinez. Gainera, autobusa Satrustegitik pasatzen da!!! Baina ez da gelditzen. Hori ez da bidezkoa.

Konponbidea?

I. Guretako oso erraza da: autobusa gelditzea, beti egiten zuen bezala. Urteak eta urteak dira hala egiten zuela Burundesak, Satrustegin gelditzen zen jendea hartu edo uzteko. Oso praktikoa zen. Hala ibili ginen urteetan. NBus proiektuarekin, duela bi urte kendu egin zuten, herria autobus zerbitzurik gabe utziz. Ez dago eskubiderik! Bidaiatu nahi duen satrustegiarrik balego, autobusak gelditu beharko luke. Autobusa herrian gelditzearen alde protesta egin dugu. Gustatuko litzaiguke ahalik eta azkarren autobusa herrian gelditzea, beti egin duen bezala.

A. Garraio publikoa sustatu beharra dago, jendeak gehiago erabili beharko luke.

Satrustegiar gazteek zer aldarrikatzen dute?

U. Autobus geltokia izanda, behar dugunean autobusa gelditzea. Horren alde gaude.

A.A.I. SATRUSTEGI

Egunero muturren aurretik pasatzen ikusten dute Nbus zerbitzuko Burundesa enpresaren autobusa satrustegiarrek, baina ez du herrian geldialdirik egiten. Autobusa hartzeko Zuhatzura edo Hiriberrira Arakilera joan behar dute. Nafarroako Gobernutik adierazi dietenez, markesina ingurua arriskutsua da. Bi urte daramatzate egoera horrekin. Eta gobernuak jaramonik egiten ez dienez, protesta egitea erabaki zuten.

Hiru satrustegiarrek online Zuhatzun autobusa hartzeko txartela atera zuten eta haiei laguntzeko herri guztia eta hainbat arakildar batu ziren. Autobusa Satrustegi parean agertu zenean, traktorea lehenik, jendea eta auto pare bat ondoren, autobusaren parean

jarri ziren. Eta oinez Zuhatzu bitarteko bidea egin zuten. Autobusa herrian gelditzearen aldeko leloak etengabe oihukatu zituzten ibilbidean. Satrustegiarren artean orokortua dagoen iritzia da hustuko ez badira, herri txikiek zerbitzuak behar dituztela.

Zuhatzutik Satrustegira oinez bueltatu ziren. Astamendi elkar-tearen ondoan auzatea zuten zain. Gobernuaren arreta erakarriko zutenaren esperantzaz, elkarrekin egindako protesta jan eta edanez ospatu zuten.

JARAMONIK EGIN EZ DIENEZ BI URTEZ, SATRUSTEGIN PROTESTA EGITEA ERABAKI ZUTEN



MAIATZAK 19-23

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Maiatzak 19 CBASkeko jokalariei elkarriketa

Maiatzak 20 Xerka proiektua

Maiatzak 21 Bertso saioa (Bertsoa.eus)

Maiatzak 22 Ibilbide moreak (Berria Podcasta)

Maiatzak 9 Agenda berezia





Sareko kideak ekimenaren berri ematen. Eskuinetik lehena Mikel Mundiñano Larraza. UTZITAKOIA

"Lege arrunta aplikatuz presoen auzia buka daiteke"

MIKEL MUNDIÑANO LARRAZA SAREKO KIDEA

Sarek antolatutako Puzlea osatu arte ekimena Euskal Herriko 29 herritatik pasako da asteburuan, tartean da Etxarri Aranatz

A.A.I. ETXARRI ARANATZ

Sareren ustez, espetxetako salbuespen politikaren bidez hainbat eta hainbat presori oraindik etxerako bide hori oztopatzen zaie. Ekimen ibiltari baten bidez horren berri emanen dute.

Puzlea bat osatu beharra ikusi du Sarek, zein puzzle?

Konponbidearen puzzlea. Oraindik hainbat dira, salbuespen legeak medio, etxerako bidean oztopoak dituzten euskal presoak. Aldi berean, deportatu eta iheslarien auziari edota biktimak

guztiek merezi duten aitortzari dagokionean ere badaude behin betiko itxi beharreko hainbat hainbat korapilo. Zentzu horretan dator asteburuko ekimena. Herri honetan bizi izan dugun gatazkaren ondorioen konpon-

"ZATIEK BATURAK ERAMAN BEHAR DIGU ELKARBIZITZA, BAKE ETA KONPONBIDERAKO AGERTOKIRA"

bidearen logikan, biolentzia ezberdinen biktimak merezita duten egia eta aitortzarekin batera eta eskatzen ari gara euskal presoek legea aplikatzea. Urteetan zehar luzatu den eta egun oraindik sufrimendua eragiten duen euskal presoek auziarekin bukatzeko baldintzak daude. Hori lege arrunta aplikatuz egin daiteke. Modu horretan, gainera, etorkizunari begira jar gaitezke, eta elkarbizitzan ere ekarpenak egiteko aukera ematen digu. Herri honetan eman den gatazkaren

ondorioen behin betiko konponbidea behar bat da gure herriarendako, Etxarrirendako, Sakanarendako eta Euskal Herriarendako.

Konponbiderako puzzle zatiak aipatutakoak dira?

Bai. Puzzle zati horien guztien baturak eraman behar digu elkarbizitzarako, bakerako eta konponbiderako agertokira. Horretarako, bai presoek auzia bai biktimen aitortza beharrezkoak dira.

Zergatik daude egoera horretan?

Oraindik gatazka honek utzi dituen ondorioak konponbidean ez direlako jarri. Horretarako aski da salbuespen legedia indargabetzea eta lege arruntaren bidez preso guzti horiek etxerako bidean jartzea. Ez da inongo pribilegiarik. Baldintzak betetzen dituzten kasuetan, espetxe eta gizarteratze politiketako preso guztiei zigorraren azken urteak erregimen irekian betetzeko aukera ematen diete. Euskal presoek kasuan salbuespen politika horrek ez du hori ahalbidetzen.

Zenbat daude egoera horretan?

Lege arrunta aplikatuko balitz, momentu honetan %100a ia kalea zapaltzen egongo litzateke, modu batean edo bestean. Horrek esan nahi du zigorra betetzen jarraituko luketela, baina kalean. Hori ez ahaztu. Espetxe politikak birgizarteratzeko hainbat aukera ditu eta erdi-askatasunean edo hainbat baldintzatan kalea zapaldu eta, beraz, zigorra betetzeko aukera ematen du. Momentu honetan motibazio politikoko 132 presoetatik 116 dira presoek kolektibokoak. Eta horietatik erdia gutxi gorabehera kalea zapaltzen ari da, 3. graduaren edo 100.2 artikulua (astegunetan lanera ateratzen da presoak) bitartez. Baina oraindik 57 preso 2. graduaren daude. Ez daukate aukerarik kalea zapaltzeko.

Ekimenak Etxarri geldialdia egingen du. Nolako izanen da?

57 preso eta 29 herri biltzen duen ekimen bat izango da. Furgoneta bat herriz herri ibiliko da, guztietan geldialdia egingez. Herrietakoak 15 minutuko ekitaldi

"KOLEKTIBOAREN ERDIA, GUTXI GORABEHERA, KALEA ZAPALTZEN ARI DA GAUR EGUN"

laburrak izango dira. Herri bakoitzean presoek errealitatea azaleratuko da. Eta aldarrikatuko da benetan puzzle zati hori beharrezko dugula konponbidearen puzzle oso hori osatu ahal izateko.

Zein da Etxarri Aranazko argazkia?

Lau euskal preso daude. Horietatik bi erregimen irekian, 3. graduaren, ari dira beraien zigorra betetzen. Haietako batek kontrol telematikoa du eta ez du espetxera itzuli beharrik. Bestea astelehenetik ostegunera lo egitera espetxera doa eta asteburua etxean ematen du. Eta beste biak 2. graduaren, erregimen itxian daude. Unai Parot Navarro Zaballako espetxean dago. 35 urte daramatza espetxean, bere garaian asmatu zitzaion trikimailu judizial baten bidez jarri zioten zigorra nolabait luzarazi zioten. Juan Ramon Karasatorre Aldaz Iruñeko espetxean dago. 13 urte egin zituen estatu frantseseko espetxeetan. Auzitegi Nazionalean ebatzi zenak Frantzia betetako urte guzti horiek onartzea dakar. Horren zain gaude. Biek baldintzak betetzen dituzte kalean egoteko.

Zer aurreikuspen ditu Sarek?

Gatazka honek utzi dituen ondorioen konponbide oso bati ekiteko baldintzak badaude. Espetxeetako auziari irtenbidea emateko lege arrunta aplikatzea besterik ez dago. Eskubidea dute, inongo pribilegiarik gabe. Aldi berean, herri honetan egon diren biolentzia guztien biktimek merezi duten aitortza eta egia egin beharko genuke. Horretan badaukagu oraindik zer egiteko. Guztien eskuetan dago. Garrantzitsua da momentu honetan eremu politikoan gatazkaren konponbidearen inguruan eman beharreko adostasunak eta akordioak. Eremu judizialean abokatuak egin behar duten lan izugarri hori: salbuespen hori indargabetu eta presoak legea arrunta aplikatuz etxerako bidean jartzeko. Eta gizartearen aktibazioa. Herri honek badu behar bat honi konponbide bat emateko. Hori konponbidea emanda, herri honek etorkizunari begiratu ahalko dio parez pare, atzean utzi dezakegulako urtetako gatazka honek utzi duen sufrimendua. Gure ametsa da presorik, iheslaririk eta deportaturik gabeko, eta biktimak guztiak aitortuak izango diren herri bateko parte izatea.

MIKEL

AZKARATE TOMASSONE

ABELTZAINA

/ ANIZ /

LANDA-INGURUNEAN

BIZITZEA

ABANTAILAZ ETA

AUKERAZ BETETAKO

ETORKIZUNEKO

AUKERA DA

**ITZULI
ETA
EKin**

**KONEK
TATZEKO
GERATU**

ESTITXU

LARREA LEACHE

DISEINATZAILE GRAFIKOA

/ AGOITZ /

ÁLVARO

GÓMEZ NIETO

FAMILIAKO MEDIKUA

/ IZABA /



ruralmood.com

**BERRIRO
KONEKTATU
HASTEKO**

**Pueblos
activos
pueblos
vivos**

**Herri
gogotsuak
herri
biziak**

#RURALMOOD

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030



cederna garaluz



consorcio
EDER



Teder



ZONA MEDIA

Irurako bidea konpontzeak handitu du aurrekontua

Dermioko bide hori konpondu eta asfaltatuko du kontzejuak. Baso aprobetxamenduaren salmentak diru sarrerak handitzea ekarriko du. Alokairurako bi etxebizitzak egiteko lanak hasi dira

LIZARRAGA

Lizarragako Kontzejuak aurtengo aurrekontuak onartu ditu. Diru kontuetan 412.560 euroko gastua eta 424.920 euroko diru sarrerak aurreikusi ditu. Aurtengo aurrekontuarekin alderatuta 161.250 euroko sarrera gehiago eta 152.840 euroko gastu handiagoa. Kontzejuko kide Eneko Etxarri Amorinek azaldu duenez, diru sarrerak gora egiteko arrazoia da baso aprobetxamendua salduko dutela. Bargan, kate parean dago, pagoz osatuta eta harengatik Maderas Larreta enpresak 72.217 euro (BEZik gabe) ordaindu du.

Gastuei dagokienez, nagusia Irurako bidearen konponketa izanen dela gaztigatu du Etxarrik, eta lan horrek 145.121,24 euroko (BEZ barne) aurrekontua du. Lanak egiteko Lizarragako Kontzejuak Nafarroako Gobernuaren 60.000 euroko dirulaguntza eskuratu du. Etxarrik azaldu duenez, "Lizarragako dermioko bide garrantzitsuenetako bat da, hainbat larre eta lursailatarako sarbidea ematen baitu. Abeltzainek ibiltzen dute mota guztietako lanetarako, esaterako, aziendari jatekoa eramateko, abereak zaintzeko eta abar. Horretarako ibilgailu astunak erabiltzen dituzte. Gaur egun, bidea egoera



San Martin ermitaren parean lizerratarra eta autoa. ARTXIBOA

ETXEAK ALOKATZEKO BALDINTZAK ZEHAZTEKO LANEAN ARIKO DIRA KONTZEJUKO KIDEAK

txarrean dago, eta ibilgailuen zirkulazioa zailtzen du".

Kontzejuko kideak azaldu duenez, "bide horrek 1.730 metro linealeko luzera du. Euriaren ondorioz material galerak izan ditu. Zaila da horietatik 4x4 ibilgailurik gabe zirkulatzea". Gaineratu duenez, "asfaltozko zola jarriko da eta ezpondak garbituko dira. Aldi berean, bi ibilgailu gurutzatzeko bi toki prestatuko dira eta San Martin ermita parean bidea zabalduko da".

Etxebizitza

Medikuarena zen etxean gizarte alokairura bideratutako bi etxebizitza egingen ditu kontzejuak, 60 bat m²-koak. Bakoitzak bi logela, komuna eta sukalde-egongela ditu. Haietako batek balkoia erabiltzeko aukera izanen du. Lana Navitec enpresa egiten ari da, 150.000 euro jasoko ditu. Uda-

lak gobernuaren 120.000 euroko dirulaguntza du. Behin obra eginda, etxeak janzteko kontzejuak Ergoienako Udalak emandako 60.000 euroak erabiliko ditu. Eta bitartean, etxeak alokatzeko baldintzak zehazteko lanean ariko dira kontzejuko kideak. Ergoienan bertan badute eredurik, bai Unanun bai Dorraon.

Aipatutako etxebizitzak egiteko lizerratarrek aurretik auzolanean hustu zuten eraikina. Eta joan zen urtean auzolanean egindako lanetako bat izan da plazan, kioskoa jartzen den tokian, barandilla berriak jartzea. Orain arte urtero mozten zen, festetan kioskoa jartzeko. Ospakizuna pasata berriro soldatzen zen. Hura nahikoa hondatuta zegoenez, kontzejuak auzolanean jarri eta kentzen den barandilla jarri du. Etxarrik azaldu duenez, "Lizarragako armariak eta zortzikoaren irudi bat jarriko ditugu barandillan. Azken hori apirilaren 12an". Azkenik, Lizarragako Kontzejuaren beste asmo bat da Erregai dermioko bidea konpontzea. Hori etorri bitartean, Ergoienako Udalak dermioko bideetako bazterrak garbituko ditu.



Emakumezkoak paseatzen. ARTXIBOA

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurka, trebatzera

Ibarreko bi berdintasun zerbitzuek lehen urte erdiko prestakuntza programa martxan dute

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko eta Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak elkarlanean aritzen dira egunerokoa. Horren adierazlea da *Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko jarduna koordinatzeko Sakanako I. Lurralde Protokoloa*, 2021etik indarrean dena. Haren Koordinazio Mahaia martxoaren 20an egindako bileran onartutako en artean dago aurtengo lehen sei hilabeterako prestakuntza plana, ondoren Lurralde Batzordeak onartu zuena. Epe horretan sei arlotako zerbitzuetako langileei eta eragileei eskainiko diete prestakuntza.

Arlo sozialeko prestakuntza honakoei dago zuzenduta: ibarreko hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionalei, Genero Indarkeriaren Biktimen dako Iruñerriko eta Nafarroako Iparraldeko Arreta Osoko Taldeko kideak, Sakanako osasun etxeetako gizarte langileak eta Altsasuko udaltzainak eta Sakanako eta Altsasuko berdintasun teknikariak. Prestakuntza horren helburu nagusia indarkeria matxistaren egoeran dauden emakumeen eta haien adingabeko haurren prebentzioa, detekzioa, arreta eta akonpaimendua lantzea da, beti ere genero ikuspegi eta ikuspegi intersektionaletik. Ekaina bitartean sei saio, ia 20 orduko prestakuntza jasoko dute gaian aditua den Eraikiz Kolektiboko Aitziber Bañuelos Ganuzaren eskutik.

Ibarreko hiru osasun etxeetako langile guztiei zuzendutako prestakuntza ere martxan da. Zentro bakoitzean bi orduko saio bana egingen da. Haietan emakumeen kontrako indarkeriarekin lotutako prebentzioan nahiz esku hartzean zentratuko dira.

Nafarroako farmaziak indarkeria matxistari aurre egiteko "puntu morea" direnez, farmazia guztietako langileei zuzendutako prestakuntza saioa ere iragarritako dago. Joan zen urtean ere jaso zuten trebakuntza eta farmazialarietako balorazio positiboa egin zuten. Horregatik, atzera ere, antolatu dute. Saioa 2,5 ordukoa izanen da, eta Sortzen Aholkularitzak emanen du maiatzaren 20an, 14:00etatik 16:30era Mankenen egoitzan.

Altsasuko Udaltzainetako kideak emakumeen kontrako indarkerian trebatzen joan zen urtean hasi ziren. Aurtengo saioaren helburua izan da indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa lantzea, eta indarkeria egoeran dauden emakumei eman beharreko arreta eta babes eraginkorrerako irizpideak lantzea. Bañuelosen eskutik trebatu dira.

Aurreikusitako dute ere ibarreko ordezkari politiko guztiei zuzendutako prestakuntza saioa, maiatzaren 28an izanen da, Altsasun. Azkenik, festetako eragileei eta tabernetako langileei zuzendutako duela bi urteko saioek segida izanen dute aurtengo. Lakuntzan atzo egin zuten, Irurtzunen maiatzaren 20an eta Altsasun maiatzaren 26an.

**BIKAIN
GARAIEA**



**Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila**

948 460 037 Arbizu



Lizarrengotarrek Euskaraldiaren kontura elkartu eta afaldu egin zuten. UTZITAKOA

Akaberarik ez duen aldia izan dadila

Euskararen erabilera aktibatze mugimendu soziala, Euskaraldia, martxan da. Euskara ulertzen duten hiztunen hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa egiten ari direnak ahobizi eta belarriprest txapengatik ezagutuko dute elkar, eta ezagutuko dituzte

SAKANA
Hilabetetan egindako lana luzitzezko garaia iritsi zaie Sakanako Euskaraldia batzordeei. Besteak beste Irurtzun, Lakuntza, Arbizu, Lizarraga, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordian Euskaraldiaren hasiera ekitaldiak egin ziren atzo. Beste zenbait herritan asteburura aurreratu zuten. Guztiak ere herrietako Euskaraldia batzordeak antolatuta. Hasiera ekitaldi guztietan mezu bera zabaldu zuten Euskaraldia batzordeetako kideek: "hasitako 11 egunetako aldiak ez du akaberarik: hizkuntzaren erabilerraren aroa ez da eta sekula bukatzen. Euskararen aldia egunez egun ekinez transmititzen da etorkizunera". Euskaraldia "pasioa, abentura, ahalegina, poza, grina, kementa eta erronka" hitzekin definitu zuten.

Antolatzaileek aitortu zuten, "urrundik gatoz eta asko egin dugu. Orain eta hemen, gehiago egiteko prest gaude: euskararen biziberritzeak mugimendua behar du. Eta gu, elkar mugitzera goaz". Euskaraldian ari direnak asko direla ziurtatu zuten. Batetik, "herriz herri batzordeetan antolatutako milaka eta milaka herritar eta boluntario konprometitu, lanerako prest, gogotsu".

Eta bestetik, "hiztun komunitate trinko bat. Gutako bakoitza, bat gehiago eta are indartsuago, sendoago". Ziurtatu zuten, "hitzez ekiteko garaia da. Eta guk, eragitea dugu helburu: lehenengo pertsonatik eta pluralean. Elkar zainduz, batera bultzatuz, konplexurik gabe: lotsagabe, tinko eta adeitsu".

Euskaraldiko parte hartzaile guztiek "komunitatea dugu ikur, auzolana lanabes. Eta gure txikian, handia egingo dugu beste behin ere, euskararen mundu oso bat kabitzen den bezala, euskaldunok ere munduan leku bat dugulako, bagara eta nor munduan". Ziurtatu zuten, "beste

inon ez da Euskaraldia bezalako ariketa sozial masiborik egin". Batzordekideek dei egin zuten "inertiak irauli eta hitza partekatuz, hizkuntzari hauspoa emateko garaia da, ilusioa banatuz, erabileran jauzia ematekoa; Euskal Herrian euskaraz eroso bizitzea dugu asmo eta".

Identifikatzailea
Hasiera ekitaldietan esan zuten, ahobizi eta belarriprest txapak ez dira "txapa sinple bat. Txapa horrek superboteak ematen dizkizu. Adorea ematen dizu, entzumena ernetzen dizu eta aldamenekoa eta zu babesten zaituzte. Txapa hau, hizkuntza

Euskaraldiko parte hartzea*

	Guztira	Ahobizi	Belarriprest	Emak.	Giz. Ez-bin.	
Arakil	70	63	7	41	29	0
Irurtzun	131	116	15	87	44	0
Irañeta	8	8	0	3	5	0
Uharte A.	70	63	7	42	28	0
Arruazu	30	29	1	18	12	0
Lakuntza	209	174	35	139	70	0
Arbizu	148	140	8	103	45	0
Ergoiena	68	58	10	40	28	0
Etxarri A.	342	311	31	204	138	0
Bakaiku	68	54	14	35	33	0
Iturmendi	52	45	7	29	23	0
Urdiain	86	76	10	49	37	0
Altsasu	535	423	112	344	188	3
Olazti	61	48	13	33	28	0
Ziordia	43	32	11	25	16	2
Sakana	1921	1640	281	1192	724	5

*MAIATZAREN 14KO, ASTEAZKEN GOIZEKO DATUAK

bezala, magikoa da: ilusioa pizten du, aldarte poztu eta komunitatea puztu. Txapa da, hitza bezala, askotariko jendea konektatzeko giltza". Gaineratu zuten, "euskarak Euskaraldia behar du. Euskaraldiak, hiztunak. Eta hiztunek, mintzakidea".

Horregatik, txapa janzteko deia egin zuten: "txapa soinean eta hitza ezpainetan, euskaradunon aldia hasten da. Totelka edo arrapaladan, ahots handi edo mehez, ozen zein xuxurlaka, goxatu belarriak eta astindu mihiak, hitzez ekinez distantziak txikitu eta

euskararen lurraldea handitzera goaz eta". Bide hori egiteko "pausoz pauso, jar gaitezen martxan, irmotasunez, mugiaraziz geldirik daudenak. Hiztunak batuz, eman euskarari arnasa. Mintzakideak elkartuz, eman elkarri babesa. Batera eraginez, erabilera handituko dugu. Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan".

Hori lortzeko, atzera ere, txapa janzteko deia egin zuten atzera ere. Hala despeditu zituzten hasiera ekitaldiak: "gora euskara, gora euskaraduna eta gora Euskaraldia!".



EGURDIAIN
sutarako egurra

608 57 03 57

etxea berotzeko
ezinbestekoa



kaxeta
LIBURUEN DENDA

Plazila

Eskaintza ederra eskulanak egiteko eta papertegian

foto.kopia@kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477

BAKARREKO ETXEA ELKARTEAREN ALOKAIKUA 2025 FESTETAN

Bakaikuko Bakarreko Etxea elkarteak bi lokal alokatzen ditu uztailaren 24tik 28ra bitarte ospatuko diren festetan. Alokairua lortzeko baldintzak hurrengoak dira:

- Lokal handia 2.500€
- Lokal txikia 2.000€
- Bi lokalak alokatzeko izena emateko epea ekainaren 13an bukatuko da. Gutun azalak egunean bertan arratsaldeko 19:00etan irekiko dira, elkartearen zuzendaritzan.
- Eskaintza elkartearen atean dagoen postontzian sartu beharko da, gutun azal itxi batean hurrengo informazioarekin: Lokal aukera (lokal handia edo txikia), izen abizenak, Telefonoa eta eskainiko diren zerbitzu/ordutegiak.
- Elkartearen bazkideak eta herritarrek edukiko dute lehentasuna.

Zalantzak argitzeko 660 698 738 telefonora edo bidali posta elektronikoa bakarrekotxe@gmail.com helbidera.



KOLABORAZIOA

MIREN ALDASORO LEZEA

Diru gosea itzalaldiaren atzean

Apirilaren 28an eguerdiko 12:33ko itzalaldi orokorra gertatu zenetik, eztabaida zabala da komunikabideetan. Aldiz, oraindik ez da erantzun argirik, eta badirudi hilabeteetan luzatu daitekeela. Hori horrela, energian adituengana jotzea da fidagarriena. Horietako bat dugu Antonio Turiel, fisikan eta matematikan doktorea, CSIC-eko ikertzailea eta dibulgatzailea. Gaia xamurra ez den arren, bere eskutik gertakaria eta aurrekariak aztertzen saiatuko naiz.

12:33etan 5 segundotan sortutako potentzia 15 GW jaitsi zen, ekoizten ari zenaren %60. Horrek Iberiar Penintsula osoan itzalaldi bat eragin zuen berehala. Zorionez, gutxi gorabehera 10 GW-ko ekoizpena mantendu zen, eta horrek, Frantzia eta Marokotik etorritako elektrizitate inportazio masiboen laguntzaz, sarearen berreraikuntza progresiboa ahalbidetu zuen. Lehen orduetan, itzalaldiaren kausari buruzko azalpen ugari eman ziren (zibererasoak, atmosferako fenomenoak, Frantziarekin zegoen interkonexio lineako gorabeherak...). Hala ere, argi geratu zen horietako ezer ez zela gertatu.

Baina, zer gertatu zen orduan? Gutxienez 12:00etatik aurrera, sare elektrikoak ezegonkortasun zantzuak erakusten zituen. 12:22 inguruan, sarea erortzear egon zen. 12:33ko erorketaren unean, eskaera eta ekoizpenaren maiztasunean 0,15 Hz inguruko bereizketa gertatu zen. Puntu horretan, azpisare batzuek ezin izan zuten gain tentsioa jasan eta deskonektatu egin ziren kalteak saihesteko. Horrek gainontzeko azpisareetan estresa handitu zuen, eta, azkenean, energia fotovoltaiakoaren zati handi bat katean erori zen. Aldi berean, zentral nuklearrak, malgutasunik ez dutenez, ezin izan ziren egoerara moldatu eta larrialdiko geldialdia egin zuten.

Egoera hau ez da salbuespen bat. Europa 2021eko urtarrilaren 8an itzalaldi masibo bat jasatear izan zen ere arazo berarengatik. Arazoaren muina energia berriztagarri bolumen handiak beharrezko korrontearen egonkortze sistemarik gabe sare elektrikora integratzean datza. 2022ko araudi aldaketetatik aurrera, sistema horiek derrigorrezkoak dira.

Energia berriztagarria sarean gutxiengo zenez, ez



ARTXIBOA

zegoen arazorik, bestelako iturriek egonkortasuna ematen baitzuten. Baina itzalaldiaren unean energia berriztagarria ekoizpen osoaren %80 zen. Ohiko sistemek, inertzialak direnez, eskaeraren aldaketetara egokitze gaitasuna dute. Sistema eoliko eta fotovoltaiakoek, aldiz, ez dute malgutasunik. Ez eta nuklearrak ere, horregatik erortzen dira era berean.

Hala ere, argi utzi behar da arazoa ez direla energia berriztagarriak. Energia elektriko berriztagarria beharrezkoa da (ingurumenagatik, erregai fosilen eskasiagatik...), baina

ezin da edozein modutan egin. Turielek balaztarik gabeko auto bat saltzen dizun saltzaile batekin alderatzen du. Autoa berez ez da arriskutsua, baina ezin da balaztarik gabe saldu. Gauza bera gertatzen da energia berriztagarriarekin: egonkortze sistemak barneratu behar ditu. Bestela, arduragabekeria larria da. Baina kostuak aurrezteko asmoz, enpresa energetiko handiek horixe egin dute urte luzez.

Egonkortze sistemarik gabe, lehen zantzuetan erreakzio azkarreko sistemak — hidroelektrikoa eta gas naturaleko ziklo konbinatuak — ekoizpena

handitu izan balute, egoera kontrolatu zitekeen. Baina une horretan, ziklo konbinatuek soilik %3 ordezkatzen zuten. Ez zen nahikoa aldaketak xurgatzeko eta egonkortasuna emateko. Are okerrago, ziklo konbinatuko zentral asko gelditu zeuden, eta horiek berrabiarazteko orduak behar dira. Zergatik zeuden gelditu? Berriztagarriei esker, aurreko egunetan elektrizitatearen prezioa zero edo negatiboa izan zenez, jabeek bestelako zentralak itzali zituzten, sistemaren segurtasuna kontutan hartu gabe.

Ondorioz, arazoa enpresek beren irabaziak sistemaren egonkortasunaren gainetik lehenestean datza. Eta erregulatzaileak, edozergatik, ezin izan die prest egotera derrigortu.

Zer ikasi dezakegu honekin? Egonkortasunean inbertitu (oso garestia da), eta erreserba zentralak mantendu behar direla (garestiak eta CO₂ igortzen dutenak). Epe luzera, agian kontsumoa murriztu beharko da, jasangarriagoa den zerbitzetara egokitzeke.

Iturria:

Antonio Turiel (2025-04-29). 'Post de urgencia: Calambrazo'. <https://crashoil.blogspot.com/2025/04/post-de-urgencia-calambrazo.html>

DUELA 25 URTE...



Euskaraz jolasten Hiriberrin

Urbaran, Arakilgo euskara taldeak, 3 eta 12 urte bitarteko umeen artean euskara zabaltzeko jarduerak antolatu zituen Aste Santuan. Eta landutako guztia emanaldi batean aurkeztu zuten. Txikiak jantziak egin eta zekizkiten abesti guztiak abestu zituzten. Koxkorragoek hainbat kontinenteetako dantzak erakutsi zituzten, tartean *Zazpi jauzi*. Bukatzeko, Asiatic etorritako herensugea agertu zen Hiriberrin. Jolastuz eta goxoki banaketarekin bukatu zen emanaldia.

Zergatik eta zertarako deskargatu aplikazioa?



Kide baldin bazara, aplikazioan izanen duzu **GUAIXE KIDE TXARTEL digitala**.



Zozketa eta lehiaketa guztietan modu erraz batean parte hartzeko aukera izanen duzu.



Norberak nahi dituen herri eta **intereseko gaiei buruzko kazetaritza edukiak eta azken orduko abisuak** lehenesteko aukera, nahieran.



GUAIXEren aldizkariak PDFan, argazki galeria, audio eta bideoekin mugikorrean irakurtzeko aukera.



Gustuko edukiak gordetzeko aukera, beranduago irakurtzeko; **edukiei iruzkinak egin eta artikulua norbaiti bidaltzeko** aukera.

Guaixe app-a!


GUAIXE aplikazioa irabazi asmorik gabeko GUAIXE FUNDAZIOAren da. Edozeinek deskarga dezake. Baina bereziki GUAIXE KIDEEi (harpidedun ordaintzaileei eta GUAIXE KIDE Txartela dutenei) bideratutako tresna modura sortu dugu. Lau atal nagusi ditu aplikazioak: kazetaritza edukiak, Sakana osoko ekitaldien agenda, 0 Km Gida (ibarreko merkatarien erakusleiho digitala) eta kideen txokoa.

GUAIXE aplikazioa, zero kilometroko aplikazioa da: euskara hutsean sortuta dago, tokiko edukiekin, Sakanan egingen diren ekitaldiekin osatutako agendarekin, gure merkatari eta ostalarien eskaintzekin eta gure

komunitatearen parte diren bazkideekin. Bertako kazetaritza landuz, euskara indartzeko eta normalizatzeko aukera dugu.

Dena den, aplikazio hau etengabeko garapen prozesu batean egonen da. **TOKIKOMeko bazkideekin elkarlanean, gure asmoa da egunez egun garatzen joatea**, tresna honek aukera gehiago eskaini ditzan. Hori bai, gustura hartuko ditugu zure ekarpenak funtzionalitate berriak garatzeko edo nabigazio esperientzia hobetzeko. Ekarpenei bat egin nahi baldin baduzu, idatzi mesedez fundazioa@guaixe.eus helbidera.

API
Heme



P-A
en da!



GUAIXE.EUS webguneko **ikus-entzunekoak eta argazkiak** doan deskargatzeko aukera.



Sakana osoko kultur eta jarduera agenda, momentu oro eguneratua.



0 Km Gida, Sakana osoko zerbitzu eta komertzioen gidarik berrituen eta osatuenarekin.



Bezero arreta atala, intzidentzien berri emateko: aldizkaria ez duzula jaso, irratia ez dela entzuten, edota beste edozein eskaera edo abisu bidaltzeko.



Gure **komunitateko kidea** izanda, gure komunikazio proiektua garatu eta hobetzeko prozesuan lagunduko duzu.

1. Deskargatu hemen GUAIXE aplikazioa **ANDROID** zein **iOS**rako.



ANDROID



iOS

2. Erregistratzea beharrezkoa da.

3. Erregistratzean, GUAIXE KIDE egiterakoan eman zenuen e-posta harekin hasi behar duzu saioa. Gainerakoan, GUAIXE KIDE ez bazara, kontua sortu beharko duzu.

4. Pasahitza ahaztu baduzu, klikatu "pasahitza berreskuratu". Erregistratzerakoan arazoren bat baldin baduzu, deitu edo idatzi admin@guaixe.eus helbidera. Guk lagunduko dizugu.

5. GUAIXE KIDE baldin bazara, aplikazioan zure datuak eta aurretik aipatutako abantaila guztiak eskuragarri izanen dituzu. Eta kide ez bazara, aplikazioak dituen hainbat baliabide eta errekurtsio ezin izanen dituzu baliatu.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN.

Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 16

ALTSASU Gazte agenda.

Gozagala Altsasuko Gozamenez film laburren lehiaketaren sari banaketa eta film laburren emanaldia.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Argazki proiektzioa.

Fernando Moreno argazkilariaren Momentos argazki proiektzioa.
18:00etan, Iortia kultur gunean.

IRURTZUN Antzerkia.

Tera -Pia Lorena Arangoa irurtzundarraren antzezlanaren emanaldia.
18:30ean, jubilatuen elkartean.

LAKUNTZA Antzerkia.

Astue baño astopotrogoa! Lakuntzako herri eskolak Lakuntzako euskaraz egindako antzezlanaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

LARUNBATA 17

UHARTE ARAKIL Topaketa.

San Migel santutegietako gazteen topaketak, Erromako jubileoaren bidean: Frantziako Normandiako Mont Saint Michel eta Italiako Val di Susako Sacra di San Michele, Luccako San Michele in Foro eta Bariko Monte Sant Angelo.

09:00 Zamartzeko monastegian harrera.

09:30 Aralarko santutegira igoera.

11:30 Aralarko santutegira iritsiera, bisita eta bilerak.

13:00 Artzapezpikuak emandako meza.

14:00 Paella jana.

15:00 Aisialdia eta jarduera.

16:00 Amaiera ekitaldia, santutegian.

17:00 Agurra.

IHABAR Gaztaren eguna. Gazta berriaren mozketa.



OSTIRALA 16

URDIAIN Helduendako plaza dantza saioa.

18:30ean, plazan.

ALTSASU Auzate girotua.

19:00etan, Foru plazan.

LARUNBATA 17

ETXARRI ARANATZ Ikastaroa eta partidak.

10:00-11:30 Dantzaki gazte eta helduendako ikastaro irekia, kultur etxean.

11:00 Pala partidak, frontoian.

ARBIZU Mintza praktika.

12:00etan, plazan.

BAKAIKU Euskaraldiaren

gunea eta ekitaldiak

Aitzibil krosa bitartean.

Arratsaldean, plazan.

LIZARRAGA Liburu

aurkezpena eta solasaldia.

Luis Lizarraga kapitaina 1473 – 1521. Nafarroako askatasunaren indarra Sakanan Juan Luis Larraza Lakunza idazlearekin.

17:00etan, Azi Iturri Txokoa elkartean.

OLATZAGUTIA Tortilla patata txapelketa.

18:00etan, plazan.

ALTSASU Euskararen

ibilbidea.

19:00etan, Iortia zabalgunetik.

10:30 Ardi esnez egindako postre lehiaketa.

11:00 El Gran Ritxarson kantariarekin bermut musikatua.

12:00 Gazta mozte Joseba Ezkurdiaren eskutik, eta Mattin Ezkurdiari omenaldia, aureskua eta otamena.

13:00 Postre lehiaketaren sari banaketa.

14:00 OKM haurren bazkaria.

15:00 OKM helduen bazkaria.

IGANDEA 18

ALTSASU Mendi eta orientazio irteera.

10:00 Dantzaleku.

10:20 Txioka.

ETXARRI ARANATZ Futbola.

Erregionalen partida.

17:00etan, futbol zelaian.

ASTEAZKENA 21

LAKUNTZA Mintzakide.

18:30ean, jubilatuen elkartean.

OSTEGUNA 22

ETXARRI ARANATZ Bertso

poteoa.

19:00etan, herrian zehar.

ALTSASU Kultura euskaraz, orain!

19:00 Elkarretaratzea eta Irati eta Ekhiñe Lumbrerasen kontzertua, Foru plazan.

20:00 Erkudengo Ama Abesbatza kaleetan barna, Iortiatik.

OSTIRALA 23

UNANU Filma eta afaria.

19:00 Ai hau pena nik! Jose Luis Erdoziaren Etxarri Aranazko hizkeraren inguruko filmaren emanaldia, Denok bat elkartean.
21:30 Afaria, Denok bat elkartean.

17:00 Ihabarko Fanfarrea.

17:30 Sakanako Harrijasotze eskola eta tailerra: Harria nola jaso, probatu nahi?

18:30 OKM Txokolate jana.

20:00 Txep taldearen kontzertua.

21:30 OKM Txistorra jana.

21:30-00:00 DJ Tododisco.

ETXARRI ARANATZ Omenaldia.

Pello Mariñelarenaren Imaz XXXII urte gogoan omenaldia.

12:30ean, hilerrian.



UTZITAKOA

ALTSASU Hainbat begirada, hainbat pertsona CEAREN erakusketa, Ongi etorri pertsona migratuak eta errefuxiatuak Sakanara ekimenaren barruan.

Maiatzaren 16tik ekainaren 15era. Iortia kultur gunean.

BAKAIKU Lasterketa.

19. Aitzibil elkartasun kros solidario Euskaraldiaren alde, Bakarrekotxea, Aitzkoar eta Trintiturri elkarrekin antolatuta, Dantzaleku Sakana klubaren laguntzarekin eta hainbat babesletzarekin. Bi aukera: Bakaiku, Iturmendi eta Urdiain herriak biltzen dituen 7,6 kilometroko ibilbide luzea, edo Bakaiku eta Iturmendi arteko 4,3 kilometroko ibilbide motza.

Bakarrekotxea elkartearen aurrean.

17:00 Haurren lasterketa.

18:00 Lasterketa nagusiak.

ALTSASU Ikuskizuna.

Go!azen 11 telesailaren ikuskizunaren emanaldia.

17:00etan (sarrerak agortuta) eta 19:30ean (azken sarrerak), Iortia kultur gunean.

IRURTZUN Bertsolaritza.

Aixita V. Bertso Sariketa, Pikuxarrek antolatuta: Iosu Sanjurjo Altzuri, Aroa Arrizubieta Barredo, Endika Legarra Nuin, Ane Zuazubiskar Iñarra, Aitor Server Etchechuri eta Josune Aramendi Perez bertsolariak. Gai jartzaila: Zigor Gartzia Arregi 'Zian'. Sarrera: doan.
17:30ean, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Hitzaldia eta zeru behaketa.

Argi poluzioa murrizketarako sensibilizazio jardunaldia: hitzaldi eta jarduera astroturistikoa.
22:00etan, Etxarri Kanpinean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

La buena letra

Igandea 18 19:30
Astelehena 19 19:00

Presunción de inocencia
Osteguna 22 19:00

IGANDEA 18

IRURTZUN Mendi irteera.

Iratxo elkartearen mendi irteera: Ortanzurieta.

08:00etan, Matxainen.

ALTSASU Futbola.

Sakanako Benjaminen Areto Futbol - Futbol 8 Topaketa.

Zelandi frontoian.

10:00 Arbizu - Sutegi

11:00 Arbizu KT - Arbizu SD

12:00 Etxarri Aranatz KE - Altsasu KE

ALTSASU Azoka.

Nomadak gaitun! Dinagu kolektiboaren azoka ibiltaria: Erkuku Artesania, Gigil, Dunix RM, Kuttun Art, Ama Jewell, Amlu, Kaori, Amalur, Torontile, Bekoop, Amuki, Lavandula, Susasanacrochts, Liresh, Pott Keramik, Isla Pitxiak, Immk, Mad Estudioa, Ehule, Kool, Luma eta Berexi Art artisauak. Janari beganoa



Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketak Irurtzunen

@gozogintzabeganoa-ren eskutik.
11:30etik 15:00etara, lortia zabalgunean.

UHARTE ARAKIL Kontzertua.
Iruñea Abesbatzaren eta Amaiurko Gaztelu Abesbatzaren kontzertua.
12:30ean, Aralarko santutegian.

ETXARRI ARANATZ Omenaldia.
Pello Mariñelarenari omenaldia, agur eta ohore eusko gudaria!
13:00etan, plazan.

OLATZAGUTIA Kontzertua.
Zigarra Txarangaren Sergio Gastaminzaren omenezko omenaldi kontzertua, txarangarekin egindako lankidetzak eskertzeko.
13:00etan, San Migel plazan.

ETXARRI ARANATZ Kontzentrazioa.
Puzzlea osatu arte!
Konponbiderako puzzle zatiak lotuko dituen Sare-ren ekimenari harrera eta erregimen itxian dagoen Juan Ramon Karasatorreren egoeraren inguruko informazioa.
18:00etan, plazan.

ALTSASU Hitzaldia.
Biak Bat izan gaitezen.
arrazakeriaren kontrako dinamika saioa Maoko konpainiaren eskutik eta Cheick Mbacke Lorekin hitzaldia.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ASTELEHENA 19

ALTSASU Elkarretaratzea.
Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 20

LAKUNTZA Ikastaroa.

Indarkeria matxistak festetan Sakanako tabernari eta festetako eragileendako ikastaroa. Izena ematea: berdintasuna@sakana-mank.eus eta berdintasuna@altsasu.net.
17:30etik 19:30era, Mankomunitatearen egoitzan.

ASTEAZKENA 21

ARBIZU Solasaldia.
Jolasaren garapenari buruzko solasaldia.
16:30ean, Kattukan.

LAKUNTZA Bertso antzerkia.
Hiru txerri txoak ipuin klasikoaren bertso antzerkiaren bertsioa, Sakanako bertso eskolaren eskutik.
19:30ean, liburutegian.

OSTEGUNA 22

ZIORDIA Tailerra.
Mikroipuinak tailerra.
18:00, liburutegian

OSTIRALA 23

ERROTZ Tailerra.
Zoru pelbiko tailerra. Izena ematea eta informazioa: arakilkultura@gmail.com eta 634 584 226 telefonoan. Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak eta Arakilgo Udalak antolatuta.
17:00etan, kontzeju etxean.

ALTSASU Liburu aurkezpena.
Altsasu 1950 – 2000 Frankismoa, trantsizioa, mende amaiera losu Imaz
Primen liburuen aurkezpena: Urte horietako gertakarien kontakizunak egoera sozial eta politikoko gogor eta korapilatsua islatzen du. Sarrerak: 2 euro.
18:30ean, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Kontzertua.
Txep taldearen kontzertua.
19:00etan, Iratxo elkartearen.

OROIGARRIA

Oihan
Garmendia Arruabarrena
Ander Azpiazu Etxarri

Beti gukin!

1980ko kintuek

OROIGARRIA

Jose Mari
Martinez de Esteban
Enekoitz Mendiola
Barandalla
Nati Aiestaran Goñi

Gukin betiko yonko zarie

Etxarri Aranazko 72ko kintuek

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo.eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifikak: 55,90 €/106,5 €/143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

OROIGARRIA

Anttoni Aldasoro
Milagros Artieda
José Ramón Ansó
Jorge Ijurco
Iñaki Orce
Encarna Jiménez
Lourdes Guruceaga
Fernando Goya

Beti gogoan

Etxarri Aranatz, 59ko kintoak

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK
ERRENTAN EMAN
Urdiaingo igerilekuak udaran kudeatzeko edota Aitziber elkarteak udako jaietan alokatze-ko: Interesa baduzu kontaktuan jarri aitziberelkartea@gmail.com emailera idatziz, informazio gehiago jasotzeko, ekainaren 6a baino lehen.
Lizarragako Azi Iturri Txokoa San Adrian festetan alokatzen da: Enkantea maiatzaren 25ean, igandean, eguerdiko 14:00etan, Azi Iturri Elkartearen bertan. Gutxienezko prezioa 1000 euro izango dira. Diru gehien eskaintzen duenak irabaziko du. Festak ekainaren 14, 15 eta 16ean izango dira. Animatu zaitzete!
Lakuntzako pisinetako taberna alokatu nahi duenak: www.lakuntza.eus webgunean edota udaletxean informazio osagarria du eskuragai eskaintza aurkeztu ahal izateko.

LAN ESKAINTZA
Lakuntzako Udalak igerilekuetan lan egiteko lan eskaintzak: Nafar Lansare bidez publikatu ditu.

OPATUTAKOAK
Giltzak igande goizean Altsasun: lortia plazan, Munduko arroren ekitaldian futbol talde baten giltzatzako gorria duen giltza sorta jaso genuen. Deitu 648 07 07 10.

LEHIAKETAK
Altsasuko festetako kartel lehiaketa: Feste-

tako programaren azala eta kontrazala izango diren kartelak aukeratzeko, parte hartzeko oinarriak eta informazio gehiago www.altsasu.net web orrian, loriakultura@altsasu.net emailera idatziz edota 948 564 272 telefonora deituz.

Irurtzango jaietako herri kartel lehiaketa: Jaien egitarauaren azala izango da kartel irabazlea, haur eta helduen kategoriak daude eta sariak egonen dira. Informazio gehiago eta oinarriak www.irurtzun.eus web orrian.

IKASTAROK
Elikadura eta ariketa fisikoa menopausian: Hitzaldi sorta antolatuta du Mank-eko kirol zerbitzuak ekainaren 13an eta 20an. Izen ematea eta informazio gehiago kirolak@sakana-mank.eus eta berdintasuna@sakana-mank.eus emailletara idatziz.

Emakumeendako doako tailerrak Altsasun: Maiaztaren 31n indar tailerra eta ekainaren 7an pelbis-zorua eta gorputz jarrera. Informazio gehiago Altsasuko udaletxean.

OHARRAK
Odol emateak Olaztin: maiatzaren 21ean, asteazkenean, 17:00etatik 21:00etara Sutehin.

Uharte Arakilen hurrendako udako aisialdi programan izena emateko epea zabalik: Udan Euskaraz oporretako euskararen arnasgunea

eskaintza prestatu du. Informazioa udaletxean.

Lizarragako San Adrian festetan jaioberriei harrera: Zapia jaso nahi duenak izena emateko epea zabalik du.

Minaberri itzulpen-bekaren II. Edizioa: Itzulpen-tzaile hasiberriei begira sortua da itzulpen-beka, eta bekaren hartzailea mentoretza baten bidez trebatuko da itzulpen-tzian. Mentoretza CEDRO erakundearen laguntzaz egingo da. Informazio gehiago EIZIEn webgunean.

Sakanako mintzakide taldeak: Ziordin ostiralean 17:00etan liburutegian, Olaztin astelehenean 18:30ean Ogiberrin, Altsasun astelehenean 16:00etan Gautxorin, ostegunetan 20:00etan Lezean (Altsuko eskua) eta ostiralean 9:00etan Kaixon eta 10:00etan Zubeitia elkartearen, Etxarri Aranatzaren ostiralean 18:30ean Xapateron, Arbizon asteartetan 16:00etan Aralar tabernan, Lakuntzan asteazkenean 18:15ean jubilatuen elkartearen eta Irurtzunen astartetan 18:00etan Iratxon eta ostiralean 9:45ean edota 19:00etan Pikuxarren.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Altsasuko CBASK Saskibaloia Klubeko emakumeen lehen senior mailako Xabi Gorritz Tattoos taldea zoriontzeko moduan dago. Duela hiru urte ahalegin handiz sortu zen taldea ligako hirugarren sailkatu da, Lauko Final ikusgarria jokatu eta gero. Pozarren daude, baina helburua "taldeak irautea, neskendako erreferentea izaten jarrai dezan" dela oso argi dute Edurne Ormazabal kapitainak, Eneko Casteig entrenatzaileetako batek eta Ainhoa Calleiras jokalaria.

Denboraldia gorabeheratsua izan da zuendako. Ongi hasi zineten, baina bigarren fasean bolada kaxkarra izan zenuten. Hala ere, buelta eman eta final laurdenetarako sailkatu zineten, eta ondoren Lauko Finalerako.

Eneko: Bai, hala da. Aurreko bi denboralditan beste entrenatzaile bat izan zuen taldeak, eta aurreko gu sartu ginen, Aimar Azpiroz, Iker Claver eta ni neroni, eta taldea ezagutzea eta taldea egitea kostatu zitzaigun.

Ainhoa: Irailean oraindik ez genuen entrenatzailearik. Gure kabuz hasi behar ginen lanean, eta, sorpresaz, guri laguntzeko sartu ziren entrenatzaileak. Eta, azkenean, hara! Entrenatzaile onak dira, espero genuena baino hobe.

En.: Nik, egia esan, ez nuen berriz entrenatzen hasteko asmorik, baina senior mailako nesken talde bat ateratzea asko kostatu zen, eta Altsasun nesken senior talde bat izatea oso garrantzitsua da. Beraz, ahalegina egin beharra zegoen.

A.: 15 urte genituela talderik gabe geratu ginen, jubenilen mailako taldea adinagatik bukatu zenetik. Lau jokalaria airean geratu ginen, talderik gabe, eta urtero galdetzen genuen CBASK-en, ea seniorren taldea ateratzeko aukera legokeen. Duela hiru denboraldi taldea ateratzea lortu genuenera arte. **Bitartean ez zenuten beste talderen batean jokatu?**

Edurne: Jokatzeko jarraitu nahi nuen, Iruñera jo nuen. Navarro Villoslada taldean aritu nintzen DBH 3. edo 4. mailatik Erizaintzako gradua bukatu arte. Baina Altsasuko taldea ateratu behar zutela jakin nuenean, etxera bueltatu nintzen, zalantzarik gabe.

En.: Hauek izan ziren gure argudioak Nafarroako Saskibaloia Federazioari Final Fourra edo Lauko Finala Altsasun jokatzeko

"Denboraldiko sorpresa gara; merezita jokatu dugu Lauko Finala"

EDURNE ORMAZABAL, ENKO CASTEIG ETA AINHOA CALLEIRAS CBASK

SASKIBALOA Historia egin du Altsasuko CBASK Xabi Gorritz Tattoos emakumeen lehen senior mailako taldeak, lehen aldiz Lauko Finala jokatu, eta ligako hirugarren izan delako



Edurne Ormazabal, Eneko Casteig eta Ainhoa Calleiras, Zelandin.

eskatu genionean. Oso garrantzitsua da Sakanan emakumezkoen kirola bulkatzea eta ikusgarritasuna, eta neska gazteek erreferentia izatea, herrian emakumeen partida garrantzitsuek jokatzeko. Eta finala Iruñetik ateratzeko, badirudielako Iruñetik kanpo saskibaloia ez dela existitzen. Klasifikazioarengatik Larraonari egoitza aukeratzea zegoen, baina tarteka salbuespenak egiten dira, talde bat lehenengoz Lauko Finalera sailkatzen denean, esaterako. Tamalez, federazioetik ez ziguten kasu askorik egin.

A.: Eta hori da gure kasua, CBASK-eko talde bat lehenengoz sailkatu baitzen Lauko Finala jokatzeko.

Buelta gaitzen liga hasierara. Ongi hasi zineten lehen fasean, baina gero bolada txarra izan zenuten bigarren fasean. Zorionez, buelta eman zenioten.

En.: Dinamikan sartzea kosta zitzaigun, baina lehen fasea oso ongi bukatu genuen. Partida asko irabazi genituen jarraian, oso ondo jokatzeko, konfiantza handiarekin. Baina bigarren fasean hasieran astebeteko geldialdiak,

"DUGUN TALENTUA ATERATZEN DUGUNEAN, EDONOREN KONTRA IRABAZ DEZAKEGU"

Santa Agedak... ez zigun gehiegi lagundu, eta hilabete txarra pasa genuen. Gainera, bola handitzen joan zen.

A.: Horrela ezin genuela jarraitu esan genuenera arte.

En.: Denak garaiz egin zuen ez-tanda, modu egoki batean, eta buelta eman genion.

Ed.: Bileran erabaki genuen txipa aldatu behar genuela, jarrerara aldatu. Ez baikenuen disfrutatzen.

En.: Jendeak kriston ahaleginak egiten ditu taldea aurrera ateratzeko. Gasteiztik entrenatzera datorren jendea, lan txandak aldatzen dituen... Eta jarrerara aldaketak final laurdenetako azken partidant funtzionatu zuen, San Ignacioren kontrakoan.

San Ignacio talde oso ona da; hura irabazita sailkatu zineten Lauko Finalerako.

A.: Oso talde indartsua da, potentea. Joaneko partidaren ez genuen irabaztea lortu, baina partidari buelta eman genion. Beraiek baino 24 puntu beherago geunden partida bukatzeko 3 minutura, eta, azkenean, soilik 5 punturen aldearengatik galdugenuen. Nahiz eta galdu, beraiek baino garai-leago ateratu ginen.

Ed.: Partida hori mentalki guk irabazi genuen.

En.: Hor eman genion buelta. "Dakigun bezala jokatzeko badugu, hau gurea da" pentsatu genuen. Itzulerako partidaren, bagenekien nondik joan zezakeen partidak, non egin genezakeen mina, eta dena ongi joan zen. Itzulerakoa 11 puntuko aldearekin gaititu genien sekulako partida jokatu, eta gu sailkatu ginen Lauko Finalera.

A.: Ongi jokatzeko dugunean, oso onak gara, San Ignacio bezala.

En.: Gure taldeak talentu handia du. Batzuetan talentu hori ateratzea kosta egiten da, baina ateratzen dugunean edonoren kontra irabaz dezakegu. Hala dela erakutsi dugu.

Lauko Finalera sailkatzea historikoa izan da Altsasuko emakumeen senior taldearen-dako.

En.: Guk dakigula, azken 20 urte hauetan ez da talderik sailkatu. Oso pozik geunden, ezin sinetsi. Merezki genuen, aurkariak ere hala esan ziguten. Dena borobila ateratu zen.

A.: Taldea mentalki indartsu zegoelako sailkatu ginen. Gure indargunea daukagun talde harremana da. Iruñeko taldeetan ez dago guk dugun harremana.



CBASK Xabi Gorris Tattoos, emakumezkoen lehen senior mailako hirugarrena.

Asko 7 urte genituela hasi ginen elkarrekin jokatzeko, eta ongi eza gutzen dugu elkar.

Ed.: Familia bat bezala gara, saskibaloiko kuadrilla. Iruñean askoz ere baliabide gehiago dituzte taldeek, eta jokalaririk gehiago, eta hemen dagoenarekin aurrera jo beharra dago. Iruñean lehiakortasun hori dagoenez, agian harremanak ez dira hemen bezain estuak. Hemengo erlazioak osasuntsuagoak dira.

Lauko Finala Larraonaren jokatu zen, aurreko asteburuan.

A.: Final Fourra oso lehiakorra izan da, lau taldeak maila paretsuan geundelako.

Ed.: Giro bikaina egon zen, eta jende asko hurbildu zen gu animatzera.

A.: Bai, oso eskertuta gaude gure zaleekin.

Larunbatean Larraona Claret izan zenuten aurkari finalerdietan. Azken uneko saskiratze batengatik galdu zenuten finalerdia, 3 punturengatik (70-67). Ze pena...

A.: Bai, eta hiru puntu zalantza- surengatik, gainera. Azkeneko segundoko arbitrajeari gure ustez ez zen egokia izan. Euren jokalaririk batek kanpoko marra zapatu zuen, eta orduan hiruko bat sartu ziguten. Zalantzaurrean, beti Iruñeko alde egiten dute. Hori da dagoena.

Ed.: Edonork eraman zezakeen kanporaketa hori.

En.: Ez dugu esango horregatik galdu genuela, guk ere akatsak egin genituelako. 17 puntu beherra egotera iritsi ginen, baina 10 minututan partidari buelta eman genion, hori da talde honek duen gaitasun handiena. Ez dugu partida galdutzat ematen; mentalki pauso bat aurrera ematen dugu.

Hurrengo egunean, hirugarren eta laugarren postuko finala jokatu zenuten Lizarrako Ega Oncinedaren kontra. Kasu honetan, zuen aldera erori zen partida, 3 punturengatik baina ere (49-46).

A.: Bai, beste hiruko batengatik. **Ed.:** Bagenekien nondik joan zitekeen partida, eta defentsan oso ongi ibili ginen. Euren jokalaririk onak primeran gauditu genituen eta gurea egin genuen, sufrizten. **Emakumezkoen lehen senior mailan hirugarrenak, taldea sortu zenutenetik hiru urte pasata eta Lauko Finalerako bi kanporaketak 3 puntuko aldearekin erabakita. Hirua da zuen zerbaita.**

A.: Bai (kar-kar). Oso pozik gaude. Ez genuen Lauko Finalerako sailkatzea espero, inondik inora. Pentsa, irailean ez genuen entrenatzailearik... Eskertuta gaude Enekok, Aimarrek eta Ikerrek faborea egin zigutelako, eta nahiz eta bakoitzak euren lanak eta ikasketak izan, senior taldea aurrera eramateagatik.

Denboraldiko sorpresa izan zarete? **A.:** Baietz esan daiteke. Denboraldian zehar ez gara talderik onena izan, gorabeheratsu ibili gara eta partida onak eta kaxkarrak izan ditugu, baina egia da jendeak ez zuela gure kontra jokatu nahi, eta zerbaitengatik izango da hori.

Ed.: Esan daiteke sorpresa eman genuela Final Fourrera sailkatzerakoan, ligako bigarrenen, San Ignacio, irabazita, agian talderik potenteena zelako. Baina partida bikaina jokatu genuen, eta Final Fourra merezitakoa izan zen.

Nork irabazi zuen final handia, eta ligako titulua?

Ed.: Navasket SF'Old-ek irabazi zion Larraonari, 3 punturengatik.

Lauko Finalerako partida guztiak 3 punturen aldearekin erabaki ziren. Niri Navasket talde onena iruditzen zait, saskibaloirik politena jokatzeko duena. Oso talde landua da, saskibaloirik bikaina jokatzeko dutena, eta denek ematen dute zerbait. Ez dute jokalaririk batekiko menpekotasuna.

Hirugarrenek zein sari jaso zenuten?

A.: Kopa eman ziguten, Lezea tabernan dagoena, eta jokalaririk bakoitzarendako domina bana. Edurne gure kapitainari beste kopa bat eman zioten, Lauko Finalerako bost jokalaririk onenen artean aukeratu zutelako. Larraonaren kontra 30 puntu egin zituen.

Lauko Finalerako historia egin duzue CBASK-en, baina zuen helburua, beste edozeren gainetik, seniorren taldea mantentzea da.

A.: Bai, argi eta garbi, klubeko neska txikiek gu erreferente moduan izaten jarraitzeko. Nesken senior talde bat izatea, helduagoak direnean bertan jokatzeko aukera izan dezaten. Bestela, kadete mailatik gorako neskek salduta geratuko lirateke, talderik gabe, gure junior taldea adin kontuengatik bukatu zenetik ez delako junior talderik egon. Senior taldea mantentzea oso zaila da, taldeki-de askok kanpoan ikasten dutelako eta entrenatzera etortzeko ahalegin handia egin behar izaten dutelako.

Ed.: Aurki bilera egingo dugu, baina datorren urtean nesken senior taldea ateratzeko asmotan gabilta. Jokalariek gain, zailena entrenatzaileak bilatzea da.

En.: Hemen garenak gara, eta badakigu gure artean moldatu beharko dugula kluba aurrera ateratzeko. Talde nagusietako jokalaririk edo jokalaririk ohiak dira entrenatzaileak gehienetan. Helburu garrantzitsua taldeak aurrera egitea da. Gero, disfrutatzen eta ahalik eta lan onena egiten saiatzen gara. Nesken taldea aterako da.

Zuek bere garaian ez zenuten klubean erreferenterik izan. Egun, txikien erreferente sentitzen zarete?

A.: Bai. Gure partidak ikustera etortzen dira. Nesken talde bat entrenatzen dut, eta euren aspirazioa senior taldera igotzea da, eta urteroko kezka, ea taldeak segituko duen.

Ed.: Guri txikitan falta zitzaigun eredu horretan bihurtu gara. Oso garrantzitsua da, eta taldea denboran mantentzea da gure erronka, atzetik datozen neskek jokatzeko aukera izan dezaten.



2024/2025 ikasturteko Dantzaleku Sakana Atletismo Klubeko eskolakoak. DANTZALEKU

Dantzalekuk III. Sakana Atletismo Eguna animatu du

ATLETISMOA Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak Ate Irekien Eguna antolatu du larunbat goizean

M.B.G. ALTSASU / SAKANA

Ikasturte bukaera gerturatzeko ari da, eta datorren denboraldirako Altsasuko kirol eskoletan izena emateko epea zabalik dago, tartean Dantzaleku Sakana Atletismo Eskolan. Neska-mutikoei atletismoan zer lantzen den erakusteko Ate Irekien Eguna edo III. Sakana Atletismo Klubak, Dantzalekun.

Goiz hasiko da Ate Irekien Eguna, 10:00etan, eta 13:00ak arte luzatuko da. "Dantzaleku Atletismo Eskolan lantzen duguna erakutsiko dugu, eta probatzeko aukera izango da: krossa, luzera jauzia, hesi-lasterketa, erreleboak... eta jaurtiketak: vortexa, xabalina, pisua..." azaldu du Dantzaleku Sakanako monitore Aitor Mendozak. Haur eta gazte sakandarrak bihar Dantzalekura hurbiltzera animatu ditu, "atletismoa gertutik ezagutzeko".

Pistako txapelketan, ongi

Dantzaleku Sakana Atletismo Eskolakoak Nafarroako Pista Txapelketa finalean lehiatzen ari dira, eta hala segiko dute hilabete honetan barna. Asteburuan Burlatan eta Larribiden aritu ziren sakandarrak, oso txukun. "Oso gustura dabilta, eta emaitza onak lortu dituzte. Esaterako, 12 urtez azpiko 500 m martxan lehen postua lortu genuen, eta 10 urtez azpiko 4x50 m erreleboetan Dantzalekuko taldea hirugarren izan zen. Denetarik probetan ari dira lehiatzen: altuera, luzera jauzia, hesi-lasterketak, erreleboak, martxa..."

Kadeteak eta jubenilak gustura aritu ziren, Larribiden. 300m, 400 m eta 1.000 metrotan parte hartu zuten, eta bosgarren eta zazpigarren postuen artean sailkatu ziren. Asteburuan proba gehiago dituzte jokoan, eta ekainaren 1ean taldekako finalak jokatzeko dira.



10 urtez azpiko erreleboetakoak. UTZITAKOA

Beunza, podiumean

Igandean 1.000 korrikalari baino gehiago lehiatu ziren 41. Iruñeko Maratoi Erdian, tartean sakandar ugari. 5 km-ko txapelketan Izaskun Beunza olaztiarra (18:29) izan zen txapelduna, eta gizonezkoetan Ivan Sobredo zazpigarren sailkatu zen (16:33).



Goian, erdian, benjamin mailako txapeldunordeak, Gartziandia eta Loidi. Behean, diploma jaso zuten pilotari guztiak. ALDABIDE

Loidi eta Gartziandia, txapeldunordeak

PILOTA Arbizuko Aldabideko bikoak NKJ-etako benjaminen Binakako Txapelketako finala jokatu zuten Labriten, baina Abaxitabideako bikoaren kontra erori ziren, final estu eta borrokatuan. Katetoria guztietako lehen sailkatuek diploma jaso zuten

M.B.G. SAKANA

Maiatzaren 10ean Nafarroako Kirol Jokoen (NKJ) Eskuz Binakako Pilota Txapelketako finala jokatu ziren Iruñeko Labrit pilotalekuan. Tartean, benjamin mailako Binakako finalean Arbizuko Aldabide taldeko Hodei Loidik eta Aratz Gartziandia

diak partida luze bezain gogorra jokatu zuten Abaxitabidea taldeko Etxeberria eta Narvaezen kontra. Azkenean, Abaxitabideako bikotea atera zen garaile (9-6 eta 9-5).

Final guztiak jokatu, kategoria eta maila guztietako lehen sailkatuek diploma jaso zuten

Labriten. Tartean zenbait bikote sakandar zeuden, Altsasuko Pilotajauku, Arbizuko Aldabide eta Irurtzun klubetako bikoteak tartean. Aldabidetik azaldu dutenez, Tasio Arbizu, Suharr Arriabalaga, Lahiotz Agirre eta Aiur Remiro pilotariak diploma jaso zuten.

PILOTA Bakaikoa, final handiko txartela lortzera

Buruz Buruko B Serietako Txapelketako finalerdiak jokatu dira gaur, ostirala, Azkoitiko Gurea pilotalekuan. Agirrek eta Aldabek jokatu dute lehena, eta Bakaikoa eta Zubizarreta III.ak bigarrena. Joanes Bakaikoa etxarriarra 2023ko buruz buruko txapelduna da, 2017ko txapeldunordea, eta hirugarren finala jokatu nahiko luke.

ARETO FUTBOLA Xota, kadeteen mailako txapelduna

Xotak kadeteen mailako areto futboleko liga irabaztea lortu du liga despeditzeko jardunaldi baten faltan. Talde irurtzundarrak 0-16 irabazi zion Los Saucesi azken jardunaldian, eta lider argia da (64 puntu) San Juani 4 puntu aterata. Igandean, 10:00etan, Avance Ezkabarte hartuko du Atakondoan, ligako azken jardunaldian.



Kadeteak, garaipena ospatzen. XOTA



"Aurtengo pizgarria San Miguel zen, eta pena da"

SANTI MORENO MORENO LA PELUSO CYCLING TALDEA

Aurten apustu handia zuen La Pelusok. Hiru ibilbide, iaz baino bat gehiago. Luzeak (153,47 km) eta Ertainak (111,57 km) San Migueleko kronoigoera jasotzen zuten nobedade gisa, eta Motza iazkoa zen, Madotzeko igoerakoa (89,9 km).

Bai, eta pena handiz Luzea eta Motza bertan behera utzi behar izan ditugu, Nafarroako Gobernuak 12:00etatik aurrera zehaztutako alerta laranjarengatik. Behin abisua jasota kasu egin behar zaio, bestela zerbait gertatuz gero ardura gurea litzatekeelako, La Peluso Cycling Taldearena. Horregatik, ibilbide Luzea eta Ertaina bertan behera uztea erabaki behar izan genuen, eta txirrindulari guztiek Motza egitea, alerta martxan jartzerako, 12:00etarako, txirrindulari guztiak lurtzunen egoteko.

Nolako amorrua...

Bai ba. Guztia prestatuta genuen, ibilbide guztia seinaleztatuta, hornidura guneak prestatuta, lau anbulantzia, Luzean eta Ertainean 700 pertsonarendako lau hornidura gune... guztia muntatuta zegoen. Asteazkenean hornidura guneetarako erosketa egin genuenean ez zegoen alerta abisurik.

Zer egingo duzue soberako elikagai eta bestelakoekin?

Banatuko ditugu.

Aralar zen aurtengo erronka berezia.

La Pelusorako 1.500 tokiak beteta zeuden, eta horietatik erdiak, 760k, ibilbide Luzea aukeratu zuten, eta 540k ibilbide Ertaina, San Migueleko kronoigoera jasotzen zutenak. Soilik 200ek eman zuten izena ibilbide Motzean. Argi dago txirrindulariak San Migueleko zetoze eta Uharteko Arakilgo pista igotzeko irrikaz zeudela. Datorrenean beharko du izan.

Eta nola hartu dute ibilbide Motza egin behar izatea?

Denetatik dago. Gehienek ulertu dute, alerta laranjarekin ezin baita jokatu. Uria ez da arazoa. Duela bi urte euri asko egin zuen, proba jokatu zen eta ez zen arazorik izan. Arazoa zen alerta laranjarekin batera ekaitz gogorrak, haize bolada handiak eta agian kazkabarra egitea ere iragartzen zutela. Eta hori arriskutsua izan daiteke. Gertu harrapatzen bazaitu, gaitzerdi. Baina Leitza edo Saldiasen harrapatzen bazaitu, zer? Zer egingo genuke horrenbeste jendekin? Ez dugu txirrindulari guztiak jasotzeko gaitasunik ez bitartekorik, asko direlako. Sekulako putakeria izan da gertatu dena, argi eta garbi. Badago ulertu ez duenik ere. Motza egiteko guztia bertan behera utzi beharko genukeela... baina alerta 12:00etarako zen, eta jendea ez da konturatzen halako tamainako proba bat ezin dela bertan behera geratu. Irurtzongo karpa muntatzeak soilik 4.000 euroko gastua du. Beraz, atera kontuak, eta gu ez gara irabaziak dituen enpresa bat.

Zenbat boluntario aritu zarete lanean?

Guztira 50 pertsona inguru. Oso eskertuta gaude herritar guztiekin. Beraiek eta gure babesle eta laguntzaileez gain, ezingo genuke La Peluso aurrera atera.



Txirrindulari taldea Etxeberrin, Madotzeko igoyerari ekiteko prest.

San Miguel, beste baterako

TXIRRINDULARITZA Iragarritako alerta laranja La Peluso martxa bete-betean harrapatu zuen. Nobedade gisa San Migueleko pistako kronoigoera jasotzen zuten bi ibilbideak bertan behera geratu ziren, eta 900 txirrindulariek Ibilbide Motza egin behar izan zuten

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Irurtzun txirrindulariz bete zen. 1.500 txirrindulari zeuden izena emanda La Pelusoren bosgarren edizioan, antolakuntzak ezarritako muga beteaz. Sorpresarekin zetorren martxa zikloturista: bi ibilbide beharrean, hiru antolatu zituen La Peluso Cycling taldeak. Luzeak (153,47 km) Uharteko pistatik San Miguel igotzen zuen Lekunberritik jaitsi eta Leitza eta Saldiaseraino heldu eta buelta hartzeko. Er-tainak (111,57 km) San Miguel kronoigoeraren ondoren Lekunberri inguruan buelta laburragoa egiten zuen, eta Motza (89,9 km) iazkoa zen, Madotzeko igoeira zuena. Tamalez, eguerdirako alerta laranja iragarri zuen Nafarroako Gobernuak eta bertan behera geratu ziren bi ibilbide luzeenak. Irteera hartu zuten 926 txirrindulariek Ibilbide Mo-

tza egin behar izan zuten, eta horietatik 800ek osatu zuten proba ez lehiakorra.

Azurmendi, Arroyo eta Arregi

La Pelusok bihotzeko gaixotasun batengatik iaz txirrindularitza utzi behar izan zuen Ibai Azurmendi Euskalteleko txirrindulari ohia eta 1986. urteko Reynolds-eko txirrindulariak omen-du zituen. Azurmendi bera eta Reynolds-eko Angel Arroyo izan ziren hasierako zinta moztu zutenak. Eurekin batera Josefina Arregi Klinikako Fundazio-ko Joseba Arregi presidentea

IBAI AZURMENDIK, ANGEL ARROYOK ETA JOSEBA ARREGIK MOZTU ZUTEN HASIERAKO ZINTA

zegoen. Izan ere, aurtan La Pelusok Sakanako klinika lagundu zuen, izena emateen kopuru bat bertara bideratuz eta 0 km-ko txartelak salgai jarritz. Arregik 4.912,20 euroko txekea jaso zuen antolakuntzako Santi Morenoren eskuetatik.

Hasieran eguraldia alde izan zuten irteera hartu zuten 926 txirrindulariek, baina iragarpena ez zen okertu eta geroz eta ilunago zegoen zerua. Madotzeko igoyeraren ostean bota zituen lehendabiziko tantak, gerora zaparradak izan zirenak. Txirrindulari guztiak Irurtzunen bueltan ziren eguerdirako. Ordurako boluntarioek prestatutako hornidura gunen oparoa zuten zain. Txirrindulariek antolakuntzaren erabakia "uler-tu eta eskertu" zuten, eta San Migueleko kronoigoera desiratu "hurrengo baterako" utzi zuten.



Joseba Arregi, Ibai Azurmendi eta Angel Arroyo, zinta moztean.



Irteera oso jendetsua izan zen, 926 txirrindulari abiatu baitziren.



La Peluso paraje zoragarrietan barna murgildu zen.



Txirrindulariek martxa onean egin zuten buelta.

LABURREAN

Altsasu, markak apurtzen segitzeko prest



Emakumeen preferente mailako liga irabazi eta gero, emakumeen lurralde kopan lan bikaina egiten ari dira gorritxoak. Hasierako multzoen fasean, laugarren multzoko liderra izan da Altsasu, kopan aurrera eginez. Horrela, kopako final laurdenetan Tudelano izango du aurkari Altsasuk igandean 18:00etan, Dantzalekun.

Altsasu eta Arbizu, kopa sakandarraren bila



Gizonen maila autonomikoko ligan Altsasu txapeldun eta Arbizu bigarren izan eta gero, Kopako finala elkarren artean jokatu lukete bi taldeek aste-buru honetan euren finalerdia irabaziz gero. Altsasuk Gazte Berriak hartuko du larunbatean, 18:30ean, Zelandin, eta Arbizuk Berriozarko Mendialdea, gaur, ostirala, 19:00etan Arbizun.

Lagun Artea, koparako aukerarik gabe



Gizonen erregional mailan, Altsasu liderrak eta Etxarri hirugarrenak une gozoan jarraitzen duten bitartean, igandea egun gogorra izan zen Lagun Artearendako, Berriozarren kontra galduta, zazpigarren postuan daude, kopako postuetan sartzeko aukerarik gabe. Lakuntzarrak erregional mailan segiko dute datorren denboraldian.

Hiru Mendi Zerrak, Hiru Haitz eta San Adrianera

MENDIA Guztira 201 mendizalek hartu zuten parte Altsasuk Mendigoizaleak taldeak antolatutako XVI. Hiru Mendi Zerrak mendi martxan. Ibilbidea goitik behera aldatu zuten, Bakaikuko Hiru Haitz eta Lizarragako San Adrianeraino

M.B.G. ALTSASU / BAKAIKU

Aurretik 234 mendizale zeuden izena emanda, baina 201 abiatu ziren Altsasuk Mendigoizaleak klubak prestatutako XVI. Hiru Mendi Zerrak mendi martxan. Tamalez, euria izan zuten bidai-de ia eremu gehienean. Ibilbidea berria zen. "Batetik, aldaketa bat bilatzen genuen, eta, bestetik, bailara egin nahi dugu. Sakana ezagutarazi, ibilaldira datozenak gure harana ezagutzeko" azaldu du Jesus Guineak.


Horrela, Altsasutik Urdiainerara jo, eta Santa Marinaran aurrera eginez, Hiru Haitz, Baiza, Lizarragako San Adrian eta Lizarragako Portura iritsi zen Ibilaldi Luzea, Bakaikura jaitsi eta Izkibiletik Bernoa eta Intxusburu lotu, eta Sorozarretatik Altsasura heltzeko. Ibilbide Motza Hiru Haitzetara heltzen zen, eta Izkibiletik Sarabeko haitzara heldu eta Urdiaingo igerilekuetatik jotzen zuen Altsasura.



Mendizaleak Bakaikuko hornidura gunerantz, Hiru Haitzetik jaitsi eta gero.

"Jendeari aldaketa gustatu zaio, hori zioten. Baina lainoagatik ez ziren Berriain eta San Adriango bista ikusgarriak ikusten, eta pena hori zuten". Altsasuk Mendigoizaleak "oso eskertuta" daude bakaikuarrekin.

"Erraztasun eta laguntza guztia eman digute". Baita mendizaleekin ere. "Denak eskerrak ematen. Gu egon beharko ginateke eskertuta" nabarmendu du Guineak. Guztia ongi atera zen, eta balorazioa ona da.



Euriari aurpegi alaia jartzen.



Ibilbide berria gustukoa izan zen.



Haragi gisatua "mundiala" zegoen.



240 ikasle herri kirolekin gozatzen

HERRI KIROLAK Sakanako Mankomunitateak antolatuta, asteazkenean XVIII. Sakanako Ikastetxe Arteko Herri Kirol Topaketa hartu zuen Uharte Arakilgo Larrebieta pilotalekuak. Sakanako LH6. mailako 240 ikasleek mukuritu bete zuten frontoia, eta 23 irakasle arduratu ziren guztia antolatzeaz. Lehenik eta behin, Peio Kañamaresek eta Uxue Ansorregik

trontza eta aizkora erakustaldia egin zuten, eta segidan, ikastetxeetako gazteak elkarren artean nahasiz taldeak prestatu eta herri kirol proba konbinatuetan lehiatu ziren neska-mutikoak, animo artean eta gustura. Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak azaldu zuenez, helburua gazteen artean herri kirolak sustatzea da.



Dantzabideak emanaldian parte hartu zuten dantzariak. UTZITAKOIA

Dantzaren bidez, arte eszenikoak ezagutzen

Dantzaz konpainiako dantzariak 'Verdantz' ikuskizuna ematen zuten maiatzaren 9an, Altsasuko frontoian. Altsasuko DBH bigarren mailako eta Etxarri Aranazko DBH lehenengo mailako ikasleek ere astean zehar sortutako koreografiak erakutsi zituzten

ALTSASU

Etxarri Aranazko, Altsasuko eta Olatzagutiko udalek, Dantzaz konpainia eta Global Servicios Culturalesekin batera arte eszenikoak gazteengana hurbiltzea helburu duen *Oholtzara Salto* ekimena antolatu zuten beste urte batez. Nafarroako Antzoki Sareak, Nafarroako Kutxa Fundazioarekin eta Caixako Gizarte atalarekin martxan jarritako proiektu "berritzailea" da, antolakuntzak nabarmendu duenez.

Programak bi helburu ditu: arte eszenikoak publiko gaz-

tearengana hurbildu eta protagonista bihurtzea, eta bestetik ikuslegoari eskaintza hurbiltzea. Hortaz, gazteak protagonistak bihurtzen dira arte eszenikoak ikastetxetan sartzen direlako; Dantza konpainiako dantzari profesionalekin arte erresidentzia egin zuten astebetez, eta dantza garaikideak eta koreografiaren sorkuntza prozesuan murgildu dira. Altsasu BHI, Altsasuko Jesusen Bihotza, Altsasuko Iñigo Aritza Ikastola eta Etxarri Aranazko Andra Mari Ikas-

tolan izan dira erresidentziak. Guztira, bederatzi gelek parte hartu dute, 210 ikasle, eta sortutako dantzak maiatzaren 9an taularatu zituzten, Dantzaz konpainiaren emanaldiaren ondoren.

Ikastetxeetan egindako erresidentzian, dantzariak *Verdantz* lanean oinarritu dira koreografiak sortzeko orduan. *Verdantz* Sarada Sarita koreografoaren lana da, eta naturan eta antipodetan kontzeptu nahasgarrian murgiltzen den bidaia sentzoriala proposatzen du.

Aixita bertso sariketaren bosgarren txapela janzteko zain

Euskal Herriko sei bertsolarik parte hartuko dute, bihar, Pikuxar elkarteak antolatzen duen bertso sariketan

E.C.M. eta E.R.B. IRURTZUN

Bosgarren urtez antolatu du Pikuxar elkarteak Aixita bertso sariketa. Aurtengo edizioa bihar, maiatzak 17, larunbata, 17:30ean, jokatu da, Irurtzungo kultur etxean (sarrera libre). Urteetako esperientziarekin lanak "erraztu egiten" direla esan du Zigor Gartzia Zian bertso sariketaren antolatzaileak eta gai jartzaileak. Bertso sariketaren bosgarren urteurrenean, hasieratik "geratzeko" zerbait sortu nahi zutela azaldu du Zianek. "Egia da saioak ongi atera diren heinean, eta poliki-poliki hartu duen gorputza eta indarrarekin aurrera segitzeko animatzen garela". Bertso sariketak "espazioa" topatu du, "eta hori ere inportantea da". Gazteak diren, "baina sariketarako hain gazteak ez diren" bertsolariei bideratutako bertso sariketa da Aixita: "Plaza polita sortu dugu".

Aixitan "izen handiko bertsolariek" parte hartu izan dute, "eta beraien esperientzia islatzen dute". Hortaz, berriak etortzen direnean "galdetuko diela" uste du Zianek. Sariketarako gazteendako izaten direla, eta "plazetan tokia" hartzea zaila denez, sariketarako "beste aukera bat" eskaintzen die eta gustura hartzen dutela esan du. "Egia da pozten direla deitzen ditugunean. Badute horren berri, eta pozgarria da".

Bertso sariketari dagokionez, ariketak "nahiko" exigenteak dira esan du Zianek: "Uste dut pasa

den urtean bertsolari batek esan zuela uste zuela jaialditxo batera kantatzera etortzen zela uste zuela, eta... Saiatzen gara, behintzat, txukun, serio eta sariketa kutsu hori ematen. Ariketak exigenteak dira, pixka bat estutzen ditugu".

Sei bertsolarik parte hartzen dute kanporaketan, eta ondoren bi iristen dira buruz burukora. "Kanporaketan zortziko handia, zortziko txikia, hamarrekotxia, puntuka eta gaia egin behar dute, baina Iparragirre doinua sartzen dugunean eta gaiari beste hiru bertso sortu behar dizkiotenean, gauza konplikatzeko da". Tarteka ere doinu "bereziaren" bat sartzen dutela gaineratu du.

Helburuak

"Garbi geneukan Euskal Herri osoko zerbait izatea nahi genuela, eta gure ahalegina da nafarrei beraiei aukera eskaintzea ere; bi nafar egoten dira beti, eta gero Iparraldetik norbait, Arabatik, Bizkaiatik, Gipuzkoatik... Beste esanahi bat badu, beste kutsu bat". Lurraldetasun "hori" sustatzea garrantzitsua dela esan du Zianek. Bestetik, bost edizioetan ere parekide izatea lortu dute: hiru emakumezko eta hiru gizonezko. "Hori ere inportantea iruditzen zaigu". Saioaren egiteko modua ere desberdina dela gaineratu du, "ildo horiek ditugu, eta halaxe segituko dugu".

Irurtzunen bertsozaletasuna dagoela, eta kantatzera animatzen denak "badauka bere tokia" esan du Zianek.

Txarangakidearen omenezko La Zigarra-ren kontzertua

Olatzagutiko La Zigarra Txarangak entzunaldi berezia antolatu du etzi, maiatzak 18, igandea, 13:00etan, Olatzagutiko San Migel plazan. Sergio Gastaminza Baztarrikaren omenezko kontzertua izanen da; Gastaminza aurreko urtean trafiko istripu batean zendu zen, 44 urte zituela, eta, besteak beste, La Zigarra Txarangako

kidea zen. Txarangak "Zigarra-ekin eginiko lankidetzagatik aitorpen gisa" antolatu du igandeko entzunaldia.

Omenaldi kontzerturako La Zigarra Txarangak denetariko abestiez osatutako errepertorioa sortu du, "gazte batendako proposak" diren abestiak, Diario de Noticias egunkarian azaldu duten bezala; esaterako, Queen, Rosendo edo La Oreja de Van Gogh taldeen abestiak joko dituzte, baita zenbait euskal kanta ere.

Bertsolarien eguna

Maiatzaren 10ean, larunbatean, Sakanako Bertsolari Txikien Eguna eta Sakanako Bertso Eguna ospatu zuten Lakuntzan. Haurrendako bertso saioak izan ziren, tartean, txutxe denda, parkean, txupatxusa jaten... Bertsolariak, haur eta helduak, bertso bazkarian bildu ziren, eta ondoren kalejirarekin bertsotan jarraitu zuten.



Udalak udako festen irudiaren bila hasi dira

Irurtzungo, Arbizuko, Altsasuko eta Olatzagutiko Udalek festen kartelen lehiaketak antolatu dituzte. Irurtzunen maiatzaren 26ra arte aurkez daitezke lanak, Arbizun hilaren 30era arte, Olaztin ekainaren 14ra arte eta Altsasun ekainaren 17ra arte

SAKANA

Lau herritako udalek festak iragarriko dituzten kartelen lehiaketak antolatu dituzte: Irurtzun, Arbizu, Altsasu eta Olatzagutia.

Irurtzungo Udalaren XXXIII. festen kartel lehiaketa izanen da; maiatzaren 26ra arte (14:00ak arte) aurkez daitezke lanak, udaletxean. Hiru kategoria daude, bi haur kategoria eta helduena. Haurren kategorien barruan, alde batetik 2015etik 2020era jaiotako haurren kategoria dago eta bestetik 2011etik 2014 urtera jaiotakoena, eta helduen kategorian 15 urte baino gehiagoko irurtzundarrek parte har dezakete (urtarrilaren 1ean Irurtzunen erroldatutakoak).

Derrigorrez karteletan *IRURTZUNGO JAIKAZ* *Uztailak 16 - 20 julio 2025 FIESTAS DE IRURTZUN* testua egon beharko da, eta neurriari dagokionez, helduen kategorian 42X60 zentimetroko lanak izan behar dira, eta euskarri gogorrean aurkeztu behar dira. Haurren kategorian DIN A3 neurriko lanak izanen dira, eta kartulina batean aurkeztu beharko dira, sinatu gabe eta gutunazal batean datuak jarrita. Irurtzungo festetako kartel lehiaketaren sariak 75 euro, 100 euro eta 400 eurokoak izanen dira, kategoriaren arabera. Irurtzun-



Altsasuko festetako kartel lehiaketaren erakusketa bat. ARTXIBOA

go jai batzordeko kideak izanen dira epaimahai.

Arbizu

Arbizuko Udalak haurren modalitateko festetako kartel lehiaketa antolatu du. Maiatzaren 30era arte aurkez daitezke lanak, udaletxearen idazkaritzan (20:00ak arte). 6 eta 14 urteko gaztetxoek parte har dezakete Arbizuko lehiaketan, eta nahi bezalako materialak erabil ditzakete, baina lana argitaratu gabekoa izanen da. Bestetik, gaia Arbizuko festak

izanen da, eta derrigorrez *ARBIZUKO SANJUANAK 2025 EKAINAREN 23TIK 29RA* mezua agertu beharko da; betetzen ez bada lana lehiaketatik kanpo geldituko da.

Lanarekin batera gutunazal bat aurkeztuko da atzeko aldean itsatsita eta bertan izen abizenak, egilearen adina eta telefono zenbaki bat egonen dira. Saria margotzeko material sorta izanen da, eta Arbizuko zinegotziek osatuko dute epaimahaia. Kartel lehiaketako irabazlea festetako egitarauan agertuko da.

Altsasu

Altsasuko festetarako kartel lehiaketan bi modalitate daude: Haurren modalitatea eta Helduen modalitatea. Bi kategorietako lanak aurkezteko azken eguna ekainaren 17a izanen da (14:00ak baino lehen), Iortia kultur gunean. Gaia Altsasuko festak izanen da; edonork parte har dezake, eta egile bakoitzak bi lan aurkez ditzake. Helduen modalitatean lanak DIN A3 edo 70X50 zentimetrokoak izanen dira, eta euskarri gogor batean aurkeztu behar dira. Derrigorrez *ALTSASUKO FESTAK FIESTAS DE ALSASUA Irailak 12 - 16 septiembre* testua agertu beharko da.

Lanak lelo batekin aurkeztu behar dira, sinadurarik gabekoa, eta atzealdean leloa idatzi behar da eta gutunazal batean *iortia.com* webgunean aurki daitekeen gehigarria beteta sartu beharko da.

Epaimahaia Altsasuko alkatetateak eta artearen munduan dauden lau pertsonak osatuko dute, eta aurkeztutako lanetatik hiru finalista aukeratu dituzte. Hiru lan horien artean irabazlea herritarren bozketa bidez aukeratu da; bozketa uztailaren 14tik 18ra eginen da, Altsasuko Udalaren webgunean. Festen aurretik lehiaketara aurkeztutako lan guztien erakusketa izanen da, Iortia kultur gunean.

Altsasuko kartel lehiaketaren Helduen modalitatearen saria 600 eurokoa da.

Haurren modalitatean Altsasuko ikastetxetako Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako ikasleek parte har dezakete. Lanen neurria DIN A3 izanen da, eta derrigorrez *ALTSASUKO FESTAK / FIESTAS*

DE ALSASUA mezua egonen da. Lanarekin batera gutunazal bat aurkeztu beharko dute, eta barruan izen abizenak, adina, helbidea, telefonoa, ikastetxea eta ikasmaila agertu beharko da. Saria marraketa materiala eta 60 euro izanen da.

Olatzagutia

Ekainaren 13ra arte aurkez daitezke Olatzagutiko festetako kartel lehiaketaren lanak. Entrega Olaztin udaletxean izanen da, bulego ordutegian (09:00etatik 14:00etara), eta lanak sinatu gabe lelo batekin eta harekin batera itxitako gutunazal batean egilearen izen abizenak, jaioteguna, helbidea eta telefonoa egonen dira.

Olatzagutiko kartel lehiaketan hiru kategoria daude: 11 urte bitarte, 12 eta 14 urte bitarte eta 15 urtetik gorakoak. Lanek derrigorrez *Santa Ana 2025. Olazti. Uztailaren 24tik 27ra Del 24 al 27 de julio* mezua izanen dute. Irabazlea aukeratzeko ekainaren 27an bozketa eginen da kultur etxean, eta sariak 75 euro, 150 euro eta 200 euro izanen dira, kategoriaren arabera.

KARTEL LEHIKETAK ANTOLATU DITUZTE IRURTZUNEN, ARBIZUN, ALTSASUN ETA OLAZTIN

HERRIAREN ARABERA, HILAREN 26RA, 30ERA, EKAINAREN 14RA EDO 16RA ARTE AURKEZ DAITEZKE LANAK

Altsasu institutuaren lehen musikal "arrakastatsua"

Maiatzaren 8an mustu zuten 'Zurekin galduta betiko ZGB Musikala', Iortia kultur gunean

ALTSASU

Altsasu BHIko DBH4ko 78 ikasleek parte hartu zuten institutuan sortzen zuten lehenengo musikalean: *Zurekin betiko galduta ZGB Musikala*. Bi saio eman zituzten, goizean ikastetxeko

ikasleei zuzendua eta arratsaldean publiko orokorrari irekita; bi paseetan aretoa bete zen.

Ikuskizuna hamar eszenatan banatuta zegoen, eta horietan ikasleek musika jotzen zuten, interpretatzen zuten, dantzatzen

ziren, baita abestu ere egiten zuten. Askotariko musika eta koreografiak eskaini zituztela esan dute institututik, "erritmo eta doinu desberdinetako abes- tiekin".

Obran zehar hainbat mezu eta aldarri zabaldu zituzten: "Aniztasunarekin errespetua, desberdinen integrazioa, ingurumenaren zaintza eta sare sozialen arriskua". Istorioak Altsasuko institutuko ikasleek Andaluziara egiten duten ikasbidaia du oinarri.



'ZGB Musikala' ikuskizuneko aktoreak. ALTSASU BHI



Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiak 'Jostailugilea' ipuin musikatu mustuko du. UTZITAKOA

Abesbatza Txikia ipuinen artean kantatzen

Maiatzaren 25ean, igandea, Lakuntzako kultur etxean, Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiak 'Jostailugilea' ipuin musikatu mustuko du. Emanaldi "berezia" izanen da. Etxarriko Abesbatza elkartasun kontzertu batean ariko da, igandean, Barañainen

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A. "Abesbatza Txikiarendako horrelako ikuskizun bat prestatzea erabat berria izan den erronka bat izan da". Irati Morentin Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiaren zuzendaria da. Lehendabiziko aldiz ipuin musikatu baten emanaldia egingen dute: Josu Elberdinen *Jostailugilea*. "Narrazioaren, antzerkiaren, musikaren eta ahotsen bidez jostailugile baten istorioa kontatzen du". Maiatzaren 25ean, igandea, 17:30ean, Lakuntzako kultur etxean mustuko dute ikuskizuna. Arbizuko eta Etxarri Aranazko 6 eta 14 urte bitarteko hamasei haur eta gaztek osatzen dute aurreko Etxarri Aranazko Abesbatza Txikia, bi kide berri dituela azaldu du Morentinek. "Aldatzeagatik" aurreko zerbait berezia prestatzea erabaki zuten: "Beti egingen genituen kontzertuak abestu ordu eta erdi gutxi gorabehera eta listo. Hasi ginen pentsatzen zer egin genezakeen, partiturak begiratzeko, eta Josu Elberdin konpositorearen

ipuin musikatuak aurkitu genituen". Konpositoreak kororako "asko" konposatzen duela esan du Morentinek, baita ipuin musikatu asko sortu dituela ere. *"Jostailugilea"* aukeratu genuen Interneten bazirelako abestien ereduak entzuteko aukera, eta ikaste prozesua errazagoa da horrela". Abesbatzak "ez duela inoiz" horrelako zerbait egin nabarmendu du zuzendariak: "Hor ibili gara: abestiak ikasi, pixka bat antzeztu...". Abesbatza Txikiko kideek "pozik eta ongi" hartu dute ipuin musikatu egitearen erronka. "Oso kontentu daude, kanta eta kanta artean arropa aldatu behar dute, txanoa jarri... Beraierako hori mundiala da. Entseguetara

ETXARRIKO ABESBATZAK ELKARTASUN KONTZERTU BATEAN PARTE HARTUKO DU

iristen direnean galdetzen dute ea moztortuko diren". "Abesti guztiak ikasi ditugu, ez dira asko, baina ez genituen eza gutzen, eta eskerrak Interneten bazirela". Partiturak istorioa gidadaten duen narratzaile bat proposatzen du, eta tartean abestiak sartzen dira, eta zuzendariak antzezlan "pixka bat" sartu diote. "Bi narratzaile egongo dira eta istorioa kontatzen joango dira. Orduan, jostailugilea agertuko da, arazo batzuk izango ditu, eta jende desberdinarekin elkartzen joango da arazo horiek konpontzeko". Antzezlan "xumea" dela esan du Morentinek, baina ilusioarekin hartu dute proiektua. "Beraiek pozik ikusten ditugu, eta horrekin nahikoa. Zerbait desberdina eta berezia izango da".

Elkartasun kontzertua
Etxarri Aranazko Abesbatzak ere emanaldi berezia izanen du Barañaingo Auditorioan igandean, maiatzak 18, 18:00etan: Proclade Yanapay Fundazioak antolatuta-

ko *Zinema bidaia* bat gala solidarioa. Abesbatzaz gain Marcos Vicentek zuzendutako musikari boluntarioek osatutako orkestra batek joko du ere. 12 eurotan eros daitezke sarrerak, eta irabaziak Indiako Bangalore hiriko desgaintasunen bat duten haurrendako funtsendako izango dira. Abesbatzan zuzendari aldaketa izan dute; Alicia Armendarizek eszedentzia hartu du eta Itsaso Loinaz musikariak hartu du abesbatzaren zuzendaritza. "Abeslari lirikoa da, sopranoa, musika irakaslea, eta operetan abesten du ere". Haren bidez parte hartuko dute elkartasun kontzertuan: "Gala antolatzen ibiltzen da eta proposatu zien abesbatza batek parte hartzea, eta gu animatu ginen". Iruñerri- itzultzeko "aitzakia" dela esan du Morentinek. Aldaketa guztiak

"gorabeheratsuak" direla esan du abesbatzako kideak, "egokitu arte aste arraroak izan ziren, baina behin ezagututa, aurrera". Proclade Yanapay Fundazioaren galan orkestrak hainbat abesti joko ditu eta orkestrak eta abesbatzak batera beste batzuk. Abesbatzaren kasuan *The Lord of the Rings*, *Como entrenar a tu dragón* eta *Gladiator* filmetako abestiak interpretatuko dituzte. "Aldi berean ekainaren 8an Etxarri Aranatzeko udaberrian urtero ematen dugun kontzertua prestatzen egon gara; aurreko ostiralean egin genuen lehenengo entsegua orkestrarekin". Orkestra batekin jotzea berezia izaten dela gaineratu du Morentinek. Kasu honetan, boluntarioak dira: "Badago jendea musikaz asko dakiena, beste batzuk zaleak dira...".

BAZTERRETIK

IRATI EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA

Udaberria





Manuel Leitza Araña Arbizuko alguazila zilarrezko katiluarekin.

"Katiluak eramateko buruzagiak zeuden"

Manuel Leitza Araña Arbizuko alguazila da, "duela hogeitertirik gora". San Isidro egunean urteko lehenengo aatea ospatu zuten Arbizun, eta Leitza prestaketaz eta 'barkilloak' banatzeaz arduratu zen. Lehen auzolanean egiten zen lan hori

6 Udalak ematen ditu, ezta?
Orain bai. Lehen Elizako Kofradiak ematen zituen, eta Pilarika egunean ehiztariek. Orain denak udalak antolatzen ditu, ehiztariena izan ezik. Duela bost edo sei urte hartu zuen udalak ardura, kofradia desagertu zenean. Ohitura ez galtzeko hartu zuen.

7 Zer eskaintzen du udalak?
Txistorra, gazta eta ardoa. Festetako aateetan alkoholik gabeko edaria ere jartzen da, mostoa, baina urtean zehar egiten diren ez.

8 Ardoa zilarrezko katiluarekin ematen duzue?
Bai. Zortzi daude, baina lau erabiltzen ditugu. Lau oso-oso zaharrak dira, eta fin-finak daude, eta beste lau kopia egin ziren eta horiek erabiltzen dira.

9 Aateetan jendea biltzen da?
Bai, baina lehen askoz gehiago biltzen zen. Adineko jendeak ohitura handiagoa zeukan. Gazteek ez dute ohiturarik. Jendea gose eta egarri etortzen da; lau gazta jartzen ditugu.

10 Urteekin aldaketarik ikusi duzu?
Lehen gizonak bakarrik etortzen ziren, eta orain emakumeak ere etortzen dira. Lehen ere norbera bere bokadilloarekin etortzen zen eta aatearen ondorengo meriendak plazan egiten ziren. Orain jendea jatetxeetara eta abar joaten da.

11 Zuk ematen duzu, ezta?
Bai, Mila Reparaz lankidearekin. Guk dena prestatzen dugu: gazta moztu, ogia txikitu eta gero barkilloarekin jendearengana joan. Lehen buruzagiak izaten ziren. Buruzagia izateko udalak egiten bazuen auzolan bat, bi lagun hartzen zituen barkilloekin ibiltzeko. Etxez etxe hartzen zen, urte batean etxe bat eta hurrengoan beste bat. Gu joaten ginen etxez etxe eta jendea ezezkua ematen hasi zen, orduan udalak erabaki zuen guk eramatea. Ibiltzen ginen etxez etxe eta ezetz eta ezetz esaten zuten, azkenean duela hamar bat urte aldatzea erabaki zuten. Garai batean derrigorrezkoa zen, auzolan bat.

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

1 Zergatik egiten da aatea San Isidro egunean?
Egia esan, ez dakit; nik horrela ezagutu dut betidanik. Misterioa da.

2 Zenbat aate egiten dituzue urtean?
San Isidro, maiatzaren 15ean, lehenengoa da; gero irailaren 8an egiten dugu, irailaren 29an eta urriaren 12an, Pilarika egunean. Niretako denak berdinak dira, baina Pilarikakoa gehiago gustatzen zait; gainera, asteburua bada jende gehiago etortzen da.

3 Zergatik egun horietan?
Irailaren 8an Nabitate eguna da; irailaren 29an, San Migel eguna eta urriaren 12an Pilarika.

4 Non eta zer ordutan egiten dira aateak?
20:00ak aldera, plazan. Txistorra, gazta eta abar jartzen dugu, eta gero jendeak bere merendurako egiten ditu, kuadrillak.

5 Festetako aateetara inguruko herrietako jendea etortzen da. Hauetara?
Ez, herrikoak bakarrik. Festetan, eguerdian, elkarrekin ematen dute hamaiketako, eta arratsaldetan, egunero, udalak aatea.

gk
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

behar duzun guztia

BAZKIDEEK
**DES
KON
TU**
BEREZIAK

fo

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu | info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus